

Eurobar - 1264 - zerb.  
XXV urtea - 2022-11-18

TOKIKOM BARREN



**EUSKARALDIA**



**Euskaraldia plazara!**

**Bihar, zapatua, 13:30ean, Kalegoen plazan**

Elgoibarko  
bizia, erosi  
herriak irabazti

  
**TXANKAKUA**  
ELGOIBARKO MERKATARIK



## ERABILI TXARTELA!!!

AZAROAREN 18TIK ABENDUAREN 18RA,  
ELGOIBARKO TXANKAKUA TXARTELAREKIN  
EGINDAKO LEHENENGO EROSKETAREKIN  
POLTSA BAT IZANGO DUZU OPARI

\*Eskaintza agortu arte.

  
**TXANKAKUA**  
ELGOIBARKO MERKATARIK



*Euskardi, ospalari, bizi onare*

ELKO JAILARITZA  GOBIERNO VASCO  
EUSKAL MERKATARIK  EUSKAL MERKATARIK

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 [facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)

 [twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)

 [instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)

Ane Astiazaran

Itzultzailea

## Kontzeptu hutsa



***"Ezin dugu euskara herririk eta marko politiko, sozial eta historikorik gabe ulertu"***

Euskaraldiaren hirugarren edizioa hasi berri den honetan, euskal gizartean oro har eta gehiegi pentsatu gabe zabaltzen den mezu bati bueltaka aritu naiz: "Hitz egin euskaraz", "egin euskaraz", "euskaraz". Mezu zuzena da, gaizki-ulertuetarako zirrikiturik gabea. Hala ere, mezu bat igortzen dugunetik hartzaileak jasotzen duen arte mezuak berak jasaten duen aldaketa izugarria izan daiteke.

Agian gehiegi orokortzen ari naiz, baina euskaraz aritzeko eskatzen duenak kontzientzia du abiapuntu, badaki zein posiziotatik egiten den eskaria, zein posiziotatik egin behar zaion bultzaz hizkuntzari, ulertzen du zapalkuntza, ulertzen du problematika. Beste muturrera jota, mezua (behin baino gehiagotan agintera behartuan) jasotzen duenak ez du kontzientzia abiapuntu, ez daki zein posiziotatik egiten den eskaria, zein posiziotatik egin behar zaion bultzaz hizkuntzari, ez du ulertzen zapalkuntza eta ez du ulertzen problematika.

Beraz, mezuan zentratu baino gehiago, agian hobe gence atzean duen esanahi potolo horretan zentratuko bagina euskaraz hitz egiteko eskatzen dugun bakoitzean. Zertarako nahi dugu euskararen kontzeptu hutsa? Ezin dugu euskara herririk eta marko politiko, sozial eta historikorik gabe ulertu. Zertarako balio digu euskaraz hitz egite hutsak? Are gehiago, zertarako nahi dugu ingurukoek euskaraz hitz egitea hautu horretan identitateak ez badu lekurik? Zer eskaintzen digu karga politikorik gabeko hizkuntzak? Aldi motz baterako biziraupena?

Sorioneku(ak) gu aldi motz hori ahalik eta gehien luzatzea lortzen badugu.

*BARRE*Nek ez du bere gain hartzen *Iritzia eta Eskutitzak* ataletan adierazitakoen erantzukizunik. *Eskutitzak* ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, *NANA* eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

-----

### Garaipen txikiak!

Euskaraldia ez zen sortu 2018an euskarak dituen zulo guztiak konpontzeko helburuarekin. Txikiagoak dira ariketaren ametsak. Aurtengo kantak dioen moduan, garaipen txiki asko dago jokoan, eta horien bila goaz Euskaraldia egiten dugun edizio bakoitzean.

“Jendeak orain arte erderaz egiten zidan, baina belarriprest txapa jarri nuenetik, euskaraz egiten didate askok eta askok”; “bikotea erderaz ezagutu nuen, eta erderaz egin dugu beti, baina biok gara euskaldunak eta horren gainean gogoeta egitea erabaki dugu”; “lanean euskara ere lan-tresna izateko aukerak aztertzen hasi gara”. Euskaraldiak ematen digunaren hiru adibide baino ez dira. Horrelako edota antzerako zenbat ote dagoen han eta hemen. Garaipen txiki horiek egiten dute handi Euskaraldia. Horregatik

merezi du izena eman, txapa jantzi eta ariketa egitea; horregatik merezi du probatzea. Badakigu hizkuntza-ohiturak aldatzea ez dela erraza, baina Euskaraldiak horretarako atea zabaltzen digu. Bakoitzak bere Euskaraldia egiteko.

Euskaraldia euskararen erabilera handitzeko ariketa bat da. Konpromisoa eskatzen du, ardura. Asko dauka sakonetik eta seriotik. Baina festa eta poza ere bada, emozioak azaleratzen ditu. Horregatik emango diogu hasiera dantzan, bihar, Kalegoen plazan; horregatik emango diogu amaiera kantuan, Jon Maiaren *Kantu bat gara* ekimenarekin, abenduaren 1ean Herriko Antzokian. Euskaraldia bizipoza ere badelako euskaldunontzat.

Elgoibarko Euskaraldia Taldea



I.URTEURRENA

“Bermeara”

**Soledad Ugarte Muñoz**

2021eko azaroaren 20an hil zen, 88 urte zituela.

**Zure distira ez da inoiz itzaliko, amama.**

Etxekoak



**Jesus Maria Coro Hubert**

2022ko azaroaren 10an hil zen, 92 urte zituela.

**Mendi askoren ostean  
tontor gorenera iritsi zara,  
egunen batean elkartuko garelakoan**

Etxekoak



# EUSKARALDIA

## HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra



# EUSKARALDIA ELGOIBARREN

## aurkezpen ekitaldia!



### *Oraingoan ere plaza beteko dugu!*

Bihar, larunbata, Kalegoen plazan, 13:30ean



Elgoibarko Euskaraldia Taldea



Biraka Dantza Elkartea




Inazio Bereziartua Musika Eskola



Elgoibarko Udala

**Jon Maiaren KANTU BAT GARA**  
**Kontzertu bat baino gehiago!**

Abenduaren 1ean, Herriko Antzokian, 19:00etan (sarrerak salgai)





Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### Aparkaleku publikoak jabetza pribatukoak balira bezala erabiltzen dituzte zenbait herritarrek:

"Santa Klara auzoan luzaroan bere lekutik mugitzen ez diren autokarabana eta Camper estiloko furgonetak daude, eta entzuna daukagunez ibilgailu bat ezin daiteke bost egun baino gehiago leku berean aparkatuta egon. Askok gainera,

autokarabana kendu eta autoa aparkatzen dute, eta gero alderantziz, beraien aparkaleku pribatua balitz moduan. Badakigu hori berez ez dela ilegala, baina ez zaigu iruditzen jokabide hori bidezkoa denik gainerako auzokideekiko. Herri kanpoaldean badaude lekuak autokarabanak aparkatzeko, eta herrigunea autoentzako utzi beharko lukete".



### Noiz asfaltatuko dute Meliton zubi ingurua?:

"Herriko hainbat gunetan asfaltatze lanak egiten ari dira, eta jakin nahi nuke Meliton ingurua noiz asfaltatzeko asmoa duten. Zulo handiak daude inguru horretan, eta asfaltatzeko beharra dago". Udalera jo dugu eta Hirigintza Saitetik esan dutenaren arabera, Melitongo zubia ez dago zulatuta, zubiaren loturak dira aldatu beharrekoak. Gaineratu dute hori ez dela asfaltatzearekin konpontzen.



### Txalo bat Galiza Etxeari, Magosto Eguna antolatzeagatik:

"Elgoibarko galiziarren gaztañerre eguna da udazkenero ospatzen duten Magosto jaia. Bi urteko etena egin dute, pandemiak behartuta, baina aurren, udazkeneroko ohitura berreskuratu du Elgoibarko Galiza Etxeak. Mila esker eta txalo bero bat gaztainak erre eta debalde banatzeagatik!".





**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
[cordonvilarchao@telefonica.net](mailto:cordonvilarchao@telefonica.net)  
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 986 162**





**MEKANOSA**  
 Errosario, 27-Elgoibar  
**943 740 284**

- IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA

## Mendekotasun edo bakardade egoeran dauden adinekoentzako zerbitzua martxan da Elgoibarren

**B**akardade edo kalteberatasun-egoeran dauden edo mendekotasun-prozesuak hasteko arriskuan dauden adinekoentzako zerbitzua jarri dute martxan Elgoibarren Udalak eta Bizitzen Fundazioak, elkarlanean. Autonomia Sustatzeko Zentroa izena eman diote zerbitzuari eta astelehenetik martxan da. Ane Beitia alkateak eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Blanca Larrañagak aurkezpenean azaldu zutenez, adineko horien autonomia -fisikoa zein kognitiboa- eta ongizatea mantentzeko beste baliabide bat izateko sortu dute zerbitzua, eta estimulazio kognitiboko, psikomotrizitateko eta jarduera ludiko eta sozilizatzaileko jarduerak egingo dituzte erabiltzaileek bertan. Astelehen, eguazten eta barikuetan emango dute zerbitzua,



10:00etatik 13:00etara, Elgoibarko Jubilatuen Biltokiko erabilera askotariko gelan, eta Bizitzen Fundazioko psikologo batek dinamizatuko du. Programa pilotua dela jakinarazi dute Udaletik eta hamabi erabiltzaileentzako lekua egin dutela lehen probaldirako. Programak Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza dauka.

### Giza eskubideen urraketak jasan dituztenak oroitu dituzte Elgoibarren

Memoriaren Egunarekin bat egin zuen Elgoibarko Udalak joan zen egunean, eta urtero egin ohi duten moduan, isilune bat gorde eta lore-sorta utzi zuten udal ordezkariak eta ekitaldira batu ziren herritarrek Giza Eskubideen parkean dagoen Gernikako arbolaren kimua den haritzaren ondoan.



### 24/7 plataformakoek Legebiltzarreko Osasun Batzordean parte hartuko dute astelehenean

24/7 Plataforma azaroaren 21ean joango da Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordera, Elgoibarrek ambulatorioarekin duen arazoa azaltzera, eta asteko zazpi egunetan eta 24 orduz zerbitzua ematen egon behar duela eskatzera. Horrez gain, elkarretaratzea ere egingo dute Legebiltzarraren atarian, eta herritarrei dei egin diete ekitaldian parte hartzera. Autobusa antolatuko dute Gasteizera joateko, eta 10:45ean irtengo da Txankakuatik.

### Evaristo Rodriguez izango da Ahal Dugu Podemosen alkategaia Elgoibarren

Evaristo Rodriguez izango da berriro Ahal Dugu Podemoseko zerrendaburua maiatzeko udal hauteskundeetan. Hala erabaki dute alderdi moreak egin duen primarioen prozesuan. Evaristo Rodriguez Elgoibarko Udaleko zinegotzi aukeratu zuten 2019ko udal hauteskundeetan, herriko 342 bizilagunen babesa jaso ondoren (botoen % 5,87). "Elgoibar hobeto baten alde" eta Udal "gardenago eta parte-hartzaileago" bat izatearen alde egingo duela agindu du.

## Bestelako basogintza eredia izango dute aztergai, Elgoibarren

**K**arakate Bizirik plataformak *Eta orain zer? Bestelako basogintza eredu baterantz* izenburuko hitzaldia antolatu du azaroaren 22rako (martitzena). Errez kooperatibakoak gonbidatu dituzte eta haiek emango dute hitzaldia. Euskal Herrian basogintzak, eta oro har ingurumenak bizi duen egoerari irtenbide ezberdin bat ematea du helburu Errez kooperatibak. Hitzaldia Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 19:00etan hasita. Asteon, berriz, Arturo Elosegi (Tolosa, 1962) izan da Elgoibarren, *Pinutik eukaliptora? Euskal Herriko basogintza auzitan* izenburuko hitzaldia ematen. Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia Fakultateko irakasle katedraduna da Arturo Elosegi Landareen Biologia eta Ekologia sailean.

### Eraikinak berritzeko edo irisgarritasun obretarako laguntzak

Martxoan iragarri zuen Udalak 145.000 euroko aurrekontu-partida gorde zuela bizitegi-eraikinak birgaitzeko edota irisgarritasun obrak egiteko. Oinarri horietan bost dirulaguntza lerro aurreikusten zituen: oin berriko igogailua jartzeko, teilatua birgaitzeko, egitura sendotzeko, fatxadak berritzeko eta eraikinaren instalazio elektrikoa osorik berritzeko. Guztira, zazpi eskabide jaso dituztela jakinarazi dute orain, eta horietatik hiru onartu dituztela. Hori horrela, 33.000 euroko dirulaguntzak banatuko ditu Udalak bizitegi-eraikinak birgaitu edota irisgarritasun obrak egiteko. Bi eraikinek 10.000 eurona jasoko dituzte, eta hirugarren batek, 13.000 euro. Dirulaguntzak onartu ahal izateko, eraikinek egurrezko egitura edo egitura mistoa izan behar zuten, eta atzera bota dtiuzten lau proposamenak hormigoizko egiturako eraikinetarako ziren.

### Aste Gastronomikoa antolatu du estreinakoz Aizu Ostalarien Elkarteak

Azaroaren 24an, 25ean eta 26an I. Aste Gastronomikoa egingo dute Aizu Ostalarien Elkarteko kideek. Perretxikoak izango dira gaia, eta horren bueltan prestatuko dituzte pintxo eta jakiak. Eguen eta barikuan pintxopotea egingo dute tabernetan, eta 1,5 euroan salduko dituzte pintxoa eta edaria. Hilaren 26rako zirkobira antolatu dute lehenik, eta Aizu elkarteko tabernetan magia saioak egongo dira. Gauean, berriz, Kresala taldeak kontzertua emango du Maalan, 23:30etik aurrera. 80ko eta 90eko hamarkadetako musika talde ezagunen tributoa egiten du taldeak.

### Mañuska Berri ondoan beste kirol-gune bat egitea bideragarria den aztertzen hasi da Mendaroko Udala

Mañuska Berri ondoko zelairako proiektatzen duten kirol guneak futbol zelaia, harmaila estaliak, aparkalekua, jokalariei zein epaileentzako aldagelak, gimnasioa eta bere aldagela propioa, erabilera askotariko bi gela, taberna, instalazio-gela eta biltegia izango lituzke barne bilduta. Udaletik nabarmendu dute Kirol Azpiegituren Planean oinarrituta agindu dutela azterketa egitea, Udalak zabalduetako inkestan herritarrek lehenetsi zituzten proiektuak kontuan hartuta. I-ingenia, ingeniería y arquitectura SA enpresa arduratuko da azterketa egiteaz, 6.875 euroko aurrekontua (BEZ gabe) izango du horretarako eta aurtengo urtea amaitu aurretik bukatuta izan beharko dute.

### KZ Guneako tutorea hilaren 21ean joango da Mendarora

KZ Guneako tutoreak azaroaren 21ean, astelehena, egingo du bisita Mendarora. Arratsaldeko ordutegian egongo da, 17:30etatik 20:00etara bitartean. Horretarako, hitzordua eskatu beharra dago, baina, [tutor.mendaro@kzgunea.net](mailto:tutor.mendaro@kzgunea.net) helbidean edo 945 062 555 zenbakian.



## Espazio publikoan hamar desfibrilatzaile jarri nahi ditu Elgoibarko Udalak

**E**lgoibarko espazio publikoan hamar desfibrilatzaile jartzeko proiektua lizitaziora aterata du Elgoibarko Udalak. Kontratu horretarako 100.000 euroko aurrekontua du, BEZ barne, eta desfibrilatzaileak jartzeaz gain, prestakuntza-saioak ematea ere eskatuko zaie aurkezten direnei. Formazio saio horiekin boluntarioak prestatu nahi ditu Udalak, erreskatatzaile izateko. Boluntario horiek alertasare bat osatuko dute eta larrialdi bat gertatzen denean, laguntza eskatuko zaie, APP baten bidez. Sakelako telefonoan deskargatu ahal izango dute APP hori erreskatatzaileek eta hara bidaliko zaizkie larrialdi-deiak, laguntza behar duen pertsonarengandik gertuen daudenak laguntzera gerturatu daitezten, ahal den azkarren, denborak urrea balio baitu halakoetan.

### Urbiziren ikastaroa, gaur

Gai honi lotuta, Urbizi urpekaritza klubak larrialdiak kudeatzen ikasteko ikastaroa antolatu du, Udal Kirol Patronatuarekin elkarlanean, gaurko, hilaren 18rako. Larrialdi egoera batean bizitza bat salba dezaketen teknikak eta jakin beharrekoak irakatsiko dituzte ikastaroan, besteak beste, Heimlich maniobra, bihotz-biriketako suspertzea edo oinarrizko bizi-euskarria nola erabili. Oinarrizko bizi-euskarriak biziari eusteari eta izan daitezkeen ondorioak ahalik eta txikienak izatea helburu duten jarduketan multzo bati egiten dio erreferentzia. Hortaz, barnean hartzen ditu honako alderdiak: hil edo biziko urgentzia-egoera identifikatzea, larrialdi-zerbitzuei abisatzea eta BBBrako teknikak aplikatzea. Izena emateko: [urbiziurazpikoelkartea@gmail.com](mailto:urbiziurazpikoelkartea@gmail.com)

### Mahai bueltan batu dira STEAM arloko emakume profesionalak eta gazteak, Lilan



Ostiralean, 10 eta 14 urte bitarteko gazteen eta herriko STEM profesionalen arteko topaketa egin zuten Elgoibarko Emakumeen Etxean (Lila), gazteen artean zientzia eta teknologiarekiko interesa eta balioak sustatzeko helburuarekin. Ordu eta erdiz, proiektu zientifikoei buruzko iradokizunak eta aholkuak trukatu zituzten Elgoibarko Lehen Hezkuntzako (10-12 urte) eta Bigarren Hezkuntzako (12-14 urte) 30 gaztek eta Elgoibarko hainbat enpresa eta erakundetako

STEAM profesionalak: EHU, Bronymec, Somabe, IMH Campus, Codesintax, Gaindu, Alcorta Forging Group eta Etxetar. Miren Agirre, Amaia De Castro, Amaia Kaltzakorta, Ana Carolina Lodeiro, Alaitz Bastida, Nagore Ruiz de Escudero, Ane Garmendia, Ane Erkiaga eta Amaia Gabilondo izan dira Bizilabeko gazteekin elkartu diren profesionalak eta proiektua bera Elhuyar Fundazioaren eta Elgoibarko Udalaren ekimenez gauzatu da.

## Janari bilketarako boluntarioak behar dira



**G**ipuzkoako Elikagaien Bankuak janari bilketa egingo du azaroaren 25ean eta 26an, eta Elgoibarren ere bilketa egin ahal izateko boluntarioak behar dira. Gurutze Gorriak eta Udalak herritarrei dei egin diete bilketan laguntzeko, eta izena emandako jende kopuruaren arabera antolatuko dituzte txandak. Interesatuak lehenbailehen jakinarazi beharko dute 943 741 050 telefonora deituz edo Herritarren Arretarako Zerbitzura joanez (Santa Ana 2, behea).

### Alkoholaren kontsumoak familietan duen eraginari buruzko hitzaldia, gaur

Gizarte Ongizate Sailak eta AL-Anon elkarteak antolatuta alkoholaren kontsumoak familietan duen eraginari buruzko hitzaldia emango dute gaur, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Azaroaren 15a Alkoholik Gabeko Munduko Eguna izendatuta dauka Osasunaren Mundu Erakundeak. Herritarrak kontzientziatu nahi dituzte horrelako substantziak kontsumitzeak eragiten dituen kalte fisiko eta psikologikoei buruz, eta gogorarazi dute Berebiziko garrantzia duela alkoholaren kontsumoan erantzukizuna sustatzeak, batez ere gazteengan.

### Urazandiko obrei buruzko bilera

Urazandi Auzo Elkarteak bilera egingo du datorren martitzenean, Udalak auzoan egin asmo dituen obren berri emateko. Urazandiko haur eskolako eraikinean izango da (Txanpian), 19:30ean.

### Antzinako Elgoibar gogoratuko dute Jubilatuen Astean



Jubilatuen Astea ospatuko dute azaroaren 21etik 27ra Jubilatuen Biltokian, eta horretarako hainbat ekintza prestatu dituzte. Bideo forum saioa, txokolate jana eta Gabonetako otarren zozketaz gain, aurtengoan atzera begira jarriko dira, eta erretratu zaharren bidez, antzinako Elgoibar gogoratuko dute. Javier Elortza eta Pello Arrieta historialariek egingo dute iraganera bidaia, eta 1900 eta 1945. artean Elgoibarrek izan dituen aldaketa nabarmenenak azalduko dituzte. Azaroaren 24an izango da, 17:00etatik aurrera, elebitan. (Egitarau osoa, agendan).

### Tratu txarrei buruzko bizipenak jaso nahi ditu Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak

Azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna da, eta horren harira, *Sinisten zaitugu* kanpaina jarri du martxan Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak. Egunerokoan, modu batean edo bestean, indarkaria jasan duten emakumeen testigantzak jasoko dituzte, modu anonimoz. Nahi duenak, <http://mendarokotratuon.blogspot.com/> webgunean utzi dezake bere testigantza, eta paperean egin nahi duenak Morroskilon eta Leire jantzi dendan egin dezake.



# HAMARKADA BAT TOKIKOAK SARETZEN

✍ Iraitz Agirre Aranguren

**Euskarazko komunitate zabalarentzat erreferentziatzeko komunikazio talde izateko helburuarekin sortutako Tokikom-ek, euskarazko tokiko komunikabideen sareak, sorreraren urteurrena ospatu zuen azaroaren 11n ArantzazuLABen. Egindako ibilbidea aitortu eta bazkideen aniztasuna txalotu zituzten ekitaldian.**

**E**uskararen normalizazioaren bidean hamarkada oparoa izan zen 1980koa, orduan sortu baitziren herri askotan euskara elkarteak eta euskararen erabilera sustatzeko lehen herri aldizkariak. 90eko hamarkadan etorri zen jauzia, 40 elkarte inguruk euren tokiko komunikabideak sortu zituzten eta. Hego Euskal Herriko elkarten eta tokiko komunikabideen indarrak batu eta arazoak elkarrekin konpontzeko helburuarekin sortu zuten, 1993an, Euskaltzaleen Topagunea, eta, haren baitan, Hedabideen Saila ere martxan jarri zuten.

Sektorearen behar bereziei modu eraginkorragoan erantzuteko beharrak, ordea, Hedabideen Sailari izaera propioa ematea eskatzen zuen, eta horren ondorioz sortu zen Tokikom, 2012an.

## KOMUNIKAZIO TALDEA

Hasieran tokiko komunikabideak taldekatzeko marka gisa sortu bazen ere, egitasmo trinkoa eta indartsua da hamar urteren ostean. Egun, 28 bazkidek [Tartean, BARREN] osatzen dute Tokikom Komunikazio Taldea, eta, guztira, 76 hedabide kudeatzen dituzte: 32 webgune, 28 aldizkari, bost telebista eta bederatzi irrati. Hain zuzen, 240 langilek dihardute taldeko komunikabideetan eta Euskal Herri osoko 307 udalerritara iristen dira.

Egindako ibilbidearen nondik norakoak ezagutu eta Tokikom osatzen duten bazkideen aniztasunari balioa emateko asmoz, urte hauetako protagonisten hitzak ekarri ditugu orriotara.

**JASONE MENDIZABAL**

Topaguneko zuzendaria

*"Sorreratik ditugu  
hedabideak erdigunean"*

Ehunka euskara elkarte eta euskaltzale taldek osatzen duten Topaguneko zuzendari Jasone Mendizabalek euskararen normalizazioaren estrategian tokiko komunikabideek izan duten garrantzia azpimarratzen du: "Topagunea sortu zen momentutik egon dira komunikabideak erdigunean. Ez da kasualitatea Topagunearen lehen izena Euskara Elkarteen eta Herri Aldizkarien Federazioa izatea".

**Solaskidetza bateratua**

1997an sortutako elkartearen lehen egiteko nagusiak euskara elkarteen saretzea, euskarazko kultur eskaintza sustatzea eta euskarazko hedabideen aldeko apustua artikulatzea izan ziren.

"Arloka eta proiektuka antolatzen ginen orduan. Hedabide saila gure esparru kuttunenetakoa zen. Bagenekien euskal hitzunok eta komunitateak egunerokoan euskaraz funtzionatzeko ezinbesteko papera betetzen zutela hedabideek. Garai hartan, herri komunikabideek paperezko prentsan jarri zituzten euren indarrak. Bakoitza bere herrian antolatzen hasi zen, ahal izan zuen moduan. Askorentzat oso zaila izan zen, ia ikusezinak baitziren. Honek tokiko komunikabideak sektore bezala antolatzea eta aintzat hartzea ezinezko bihurtzen zuen, eta erakundeekin harremanetan jartzeko solaskidetza bateratuaren ideiarri bueltaka hasi ginen, beroni forma ematen. Tokikom izango zena garatzeko oinarri nagusiak jarri ziren orduan".

**MIKEL IRIZAR**

Tokikomeko lehen lehendakaria (2012-2014)

*"Elkarlanerako  
gune baten beharra zegoen"*

2011. urtean hasi zen Tokikom gorputz propioa zizaten. Topaguneko lehendakari zen Mikel Irizar Tokikomeko lehendakari bihurtu zen orduan, komunikabideen sektoreak bizi zuen egoeraren aurrean antolatu eta artikulatzeko premiak animatuta.

Irizarren hitzetan, Tokikom sortzea premiazkoa zen. 90eko hamarkadaz geroztik euskara elkarteak eta tokiko komunikabideak sortuta zeuden, baina "bakoitza bere herrian antolatzen zen, tarteka eskualde mailako proiektuak ere sortu ziren arren. Bilakaera handiko esparru honetan, ordea, txikiegi gelditutako asko eta asko ere bazeuden. Tresnak konpartitzeko eta publizitatearen gaiaz hausnartzeko behar handia zegoen. Elkarlanerako gune berri baten beharra genuen".

**Ahulezien baturatik, indarra**

Herri honetan ahuleziak batuz gauza asko egin direla eta Tokikom horren adibide dela dio Irizarrek: "Ahulezietatik indarra ere atera daiteke, lankidetzarako ikuspegia eta borondatea badago. Tokikomen sorreran ahuleziak bazeuden, baina baita indarrak ere. Goienaren esperientzia ezagutzen genuen, eta taldekatzeak zekartzan abantailak ere bai. Euskal komunikabideen sektorea bi solairuko etxe bat bezala irudikatzen hasi ginen: behean tokiko komunikabideak, herritarrekin batera informazioa lantzen; bigarren solairuan, nazio mailako medioak; eta tartean, bien arteko igogailuak. Hamar urteren ostean, formulazio honek egokia izaten jarraitzen du".



**G**oiena Komunikazio Taldeko zuzendaria zen 2012an Inazio Arregi Tokikomeko lehen zuzendari bihurtu zenean. Bi karguei batera erantzutea egokitu zitzaion elkartearen lehen urteetan.

Krisi ekonomikoak Tokikomen sorreraren beharra azkartu zuela azpimarratzen du Arregik.

"Nahiz eta ordura arte erakundeek euskarazko komunikabideetan jartzen zuten publizitatea oso txikia izan, hor ere beherakadak etorri ziren. Dirulaguntzak murriztu egin ziren eta larritasun horri erantzuteko asmoz hasi ziren hedabideak batzen; tokiko hedabideak ez ezik, euskarazko hedabide guztiak. Bi egitasmo paralelo sortu ziren orduan: batetik, Hekimen, herri ekimeneko

euskarazko komunikabideen sarea; eta, bestetik, Tokikom, tokiko komunikabideen taldea".

### Tresnen garrantzia

Elkarlana esparru askotan izan zela dio Arregik, eta digitalizazio prozesuak beharrezko zuen formakuntza gakoa izan zela. "Jendeak bazuen kezka digitalizazioaren aurrean ea nola kokatuko ginen. Plataforma digital komuna garatu genuen, eta gaurkotasuneko gaiak jorrazteko aukera ematen zuen. Horrek egunerokotasunera jaitsi beharra esan gura zuen. Prestakuntza eta plataforma digital bateratua martxan jartzeak argi asko piztu zituen. Gure produktuak homogeneousatu eta hedabide ezberdinak taldekatzeko bidea zabaldu zen horrela".



**T**okikomek bezala, hamarkada bat beteko du aurtun Hekimen elkarteak ere, herri ekimeneko euskarazko komunikabideen elkarlana bideratzeko sortutako taldeak. Hekimenek 2012an ekin zion Euskal Herriko euskarazko komunikabideen sektorea taldekatzeko prozesuari. Bertako lehendakaria da Iban Arregi, Berria-ko kidea, 2014az geroztik. Haren hitzetan, euskarazko komunikabideek indartuta dute momentuko erronkei aurre egiteko muskulua, baina beharra ere ez da nolana hikoia.

"Gurea bezalako elkarte batek izaera ezberdin eta pluralak kudeatu behar ditu, baina kontuan hartu behar da ahots bateratua izatea dela izan dezakegu tresnarik potenteena, bai administrazioari begira eta baita gizarteari begira ere. Hori tresna oso indartsua da, eta

balioa eman behar zaio, askotan gutxietsi egiten dugu eta".

### Elkarlanean sakontzen

Hamargarren urteurrenagatik zoriondu eta datorren digitalizazio eta tsunamiari erantzuteko gaitasuna eta argitasuna izatea opa dizkio Tokikomi Arregik. Sektore barruko eragileen arteko elkarlana oso sendoa izan da orain arte, eta horrela izaten jarraituko duela uste du: "Orain arteko elkarlan horretan oraindik eta gehiago sakontzen jarraitu behar dugu, are eta gehiago saretzen. Normala den bezala, desegonkortasun egoerek kezka sortzen dute eta beldurrak mugitzeko zailtasunak eragiten dituzte, baina ea lortzen dugun denon artean aurrera egin eta pauso gehiago egitea".

## INAZIO ARREGI

Tokikomeko lehen zuzendaria

*"Larritasun ekonomikoak ere batu gintuen"*

## IBAN ARREGI

Hekimeneko lehendakaria

*"Ahots bateratua izatea tresna indartsua da"*

**ALAITZ ARTOLAZABAL**

Tokikomeko zuzendaria

**JOXE ROJAS**

Tokikomeko IKT eta komunikazio zuzendaria

**IBAN ARANTZABAL**

Tokikomeko lehendakaria

## *“Komunikazio Taldea indartzea da erronka”*

**I**ragan urteotako erronkak ez dira makalak izan Tokikomontzako, baina datozen urteotakoak ere ez dira nolanhikoak izango. Adimen artifizialaren garapena, autofinantzaketa iturri berrien arakatzea eta komunikabideen arteko solaskidetza indartzea dira orriotara ekarri ditugun protagonisten kezkek. Etorkizunak dakarrenaz eta erronka nagusiez jarduteko bildu ditugu Iban Arantzabal, Alaitz Artolazabal eta Joxe Rojas, Tokikomeko egungo ordezkariak.

### **Ondo landutako aterkipea**

Sorreratik Tokikomeko administrazio kontseiluko kide izandakoa, Tokikomeko lehendakaria da gaur egun Iban Arantzabal, Goienako zuzendaria. "Hamar urte hauetan, enpresa zerbitzu emaile bat irudikatetik bazkideen enpresa bat izatera igaro da Tokikom. Gauzak egin ahala, hobetzen eta efizienteago bihurtzen joan gara, hedabide bakoitzarentzat ekarri handiagoa lantzen. Tokikomen inplikatzak eraginkorragoa izatea dakar. Ez balego, sortu egin beharko litzateke. Komunikabideen sare batetik komunikazio talde izatera pasa gara eta gisa honetako komunikazio talde batek egin beharko litzatekeenak garatzeko funtzioa dugu. Zero kilometroko komunikazioan dihardugun tokiko komunikabideok ondo landutako aterkipe batean gaudela sentitzen dugu".

### **Pertsonak erdigunean**

Enpresen berrikuntza alorrean urteak eman ostean hartu zuen Tokikomeko zuzendaritza, 2015ean, Alaitz Artolazabal zumarragarra. Momentu honetako erronka nagusienaz galdetuta, komunikabide talde izatetik komunikazio talde

bihurtzeko jauzia egitea dela erantzun digu.

"Tokikom osatzen dugun komunikabideen arteko elkarlanean gehiago sakondu behar dela uste dut, elkarlan hori gure egunerokotasunean integratu behar dugula, bakoitzak tokikoa ondo zaindu eta lantzeko konpromisoarekin, baina zeharkako bestelako lanak ere konpartituz".

Tokikomen barruan errealitate pluralak daudela onartzen du, baina bisio bat konpartitzen dutela. "Norabide bakarrean joan eta elkarrekin apustua egiteko asmoa dago. Denok eman eta denok jasotzea da helburua, bai mapa osatzen joateko eta baita talde izaera indartzeko ere. Etorkizuneko leihogloblean, gertuko komunikazioan beti gertu izango gaituzue".

### **Teknologia berriak ate joka**

Tokikomek bere ibilbidea hasi zuenetik teknologia berrietara egokitzeko ahalegin berezia egin du. Horren arduradun nagusia izan da Joxe Rojas, Tokikomeko IKT eta Komunikazio zuzendaria.

Etorkizunaz galdetuta, bi erronka handiren aurrean gaudela azpimarratzen du: "Batetik, datuen mundua dugu. Horien ustiaketari esker jakin ahal izango dugu erabiltzaileari zer interesatzen zaion, denbora non pasatzen duen, eta horri esker erabakiak errazago hartu ahal izango ditugu. Bestetik, azken urteotan mahai gainera etorri zaigun adimen artifizialaren gaia ere badago. Ildo honetan, ezin dugu itzulpen automatikoa ahaztu; izan ere, honek eszenatoki guztiz berri baten aurrean jarriko gaitu. Euskalgintza moduan zer paper betetzea dagokigu? Ez dakit erronka hauei heltzerakoan asmatuko dugun edo ez, baina radarra, behintzat, piztuta daukagu".



## BARREN ere saritu dute Tokikom Sarietan

**T**okikomek, toki komunikabideen bateraguneak, Tokikom Sariak banatu zituen joan zen barikuan Arantzazun, eta BARREN Komunikazio Proiektuak ere jaso zuen saria. Parte hartzaile guztiak sorpresaz hartuta, Tokikomek bazkide guztiak saritu ditu aurten, taldea ofizialki eratu zenetik 10 urte bete berri diren honetan elkarrekin egindako bidea ospatu eta aldarrikatzeko. Horrenbestez, esan daiteke euskarazko tokiko kazetaritza izan dela irabazlea aurtengo edizioan. Gaur-gaurkoz, 28 bazkidek osatzen dute Tokikom, guztira 74 hedabide kudeatzen dituztenak: 32 webgune, 28 aldizkari, 5 telebista eta 9 irrati, eta 240 langilek dihardute taldeko komunikabideetan lanean.

Sariak banatzeaz gain, Tokikomen hamar urteko historiari errepaso azkar bat egin zioten ekitaldian, baina iraganari baino gehiago, etorkizunari begiratzeko eguna izan zen. Bazkideak protagonista izan ziren mahainguruetan, Tokikomek talde gisa hurrengo urteetarako dituen erronkak izan zituzten hizpide: "Handienetako bat Tokikomen beraren izaera eraldatzea da"- esan zuen Alaitz Artolazabal, Zuzendari Nagusiak - "gure hausnarketa estrategikoan onartuta daukagu Tokikom komunikabide talde izatetik komunikazio talde izatera pasatu behar dugula, eta horren inplikazioak zehazten joan behar dugu pixkanaka-pixkanaka". Bigarren erronka handia taldearen zein osatzen duten komunikabideen finantzazioan datza.

Tokikomeko presidente Iban Arantzabalek bi ildo nagusi azpimarratu zituen: "Alde batetik, munduko beste komunikabide guztiek bezala, formula berriak bilatu behar ditugu gure komunitatearen sostengua handitzeko: kidetza formula berriak sortu, produktu berriak eskaini, harreman estuagoa garatu tokian tokiko merkatariekin... Eta bestetik, dirulaguntza publikoen gaian ere, erakundeekin azken urteetan landutako akordioetan sakontzera eta formula berriak adostera jo beharko genuke, betiko laguntza lehiakorren eskematik atera eta hitzarmen egonkorragoak lortu, oraingo laguntzen ziurgabetasuna amaitzeko".

Arantzazuko ekitaldian parte hartu zuten hainbat politikaririk: Estibaliz Alkorta Eusko Jaurilaritzako Euskara Sustatzeko zuzendariak, Mikel Arregi Nafarroako Gobernuako Euskarabideako zuzendariak, eta Garbiñe Mendizabal eta Xabier Arauzo, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundietako Hizkuntza Berdintasuneko zuzendariak hurrenez hurren. Estibaliz Alkortak eta Garbiñe Mendizabalek elkarlanean jarri zuten azpimarra. Alkortak adierazi zuen Tokikomek Eusko Jaurilaritza bidelagun duela eta denborak erakutsi duela bidea elkarlana dela. Mendizabalek, bestalde, elkarlanean lan egitea "errentagarriagoa" dela esan zuen eta honako eskatu: "Elkarlana behar dugu zuen eta gure artean; izan ere, gure hizkuntzaren normalizazioak elkarlana beharko du eta gure herriaren normalizazioak ere elkarlan hori behar du".

# DORRE EOLIKO BAT IRUDIKATZEKO GIZA KATEA OSATUKO DUTE ELGOIBARREN

✍ Aina Argoitia / 📍 Asier Orbea  
👤 Gipuzkoako Mendiak Aske

**Green Capital enpresak Karakaten eraiki nahi dituen haize erroten kontra indarrak biltzeko ahaleginean jarraitzen du Karakate Bizirik plataformak. Proiektuak kontrako iritzi asko bildu ditu. Elgoibarko Udalak berak ere aho batez egin zuen maiatzean Green Capitalek Karakaterako dituen asmoen kontra, baina plataformatik ohartarazi dute bere bidea egiten ari dela enpresa eta prozesua azken fasean sartu dela. "Ezin dugu guardia jaitsi". Hala, mobilizazio handia iragarri dute azaroaren 26rako. Gipuzkoako Mendiak Aske plataformak deituta Elosun egin bezala, giza kate bat osatu nahi dute Elgoibarko kaleetan, dorre elektriko bat irudikatuz.**

**A**buztuan, opor sasoiaren, argitaratu zituen proiektuaren inguruko xehetasun gehiago Green Capital enpresak, behin-behineko ingurumen txostenean. Besteak beste argitu zuen dorre eolikoaren piezak Karakateraino garraiatzeko irtenbide bakarra ikusten dutela: Hau da, Elosutik barrena, mendigain osoan zehar, bost metro zabal lituzkeen 8,4 kilometro luzeko errepidea eraikitzea dorreak jarri nahi dituzten lekuraino. Errepide horrek, oro har, %15eko malda izango luke gehienez, nahiz eta punturen batean %20rainokoa onartu, eta errebuelletan, berriz, gutxienez 60 metroko erradioa izan beharko luke. Horrekin batera, aurreproiektuan aipatzen ez zuten dorre meteorologikoa eraikitzeko asmoa ere jaso zuten txostenean, baina ez zuten zehaztu kokapena. Hirugarren dorre horrek 101 metroko altuera izango luke, eta eusteko, 520 metro koadroko plataforma eraiki beharko lukete. Azkenik, eta aurreratua zuten bezala, haize erroten sortuko luketen



**Haize-erroten piezak Karakateraino garraiatzeko bide bakarra ikusten du enpresak: Elosutik barrena, mendigain osoan zehar, bost metro zabal lituzkeen 8,4 kilometro luzeko errepidea eraikitzea**

energia Azkuekeko zentralera ekartzea hobesten dute, sare orokorrera lotzeko. Horretarako, 4,1 kilometroko bidea zulatzea aurreikusten dute, klabe-sarea lurperatzeko.

Proiektuak ingurumenean eragin "moderatu" izango lukeela zehazten du enpresak, eta dio ez duela ikusten arrazoirik aurrera egin ez dezan. Proiektuaren eraginpean daudenean, baina, zalantzak dituzte. Jaurlaritzaren Garapen Ekonomiko eta Jasangarritasunerako Departamentuak abuztuaren 2an enpresaren hasierako ingurumen txostena aurkeztu zuenetik aurrera 30 eguneko epea izan zuten aldeek txostena aztertu eta ekarpenak egiteko, eta Elgoibarko eta Soraluzeko Karakate Bizirik plataformek ere aurkeztu zituzten bereak. Baita Elgoibarko, Soraluzeko eta Bergarako udalek ere. Elgoibarko Udalak abuztuaren 12an aurkeztu zituen bere ekarpenak eta irailaren 14an, Karakate





## Karakateko Igoera jokatu dute bihar Elgoibarren, eta sinadurak biltzeko eta materiala saltzeko probestuko dute aukera Karakate Bizirik plataformakoek. 200dik gora sinadura bilduta dituzte

Bizirik-ek (Morkaikoren izenean aurkeztu zituen, plataformak ez baitu izaera juridikorik). Nolanahi ere, eta nork bere dokumentua aurkeztu arren, ekarpenak "ildo berekoak" direla nabarmendu du Mikel Olaizola plataformako kideak. Ekarpene horiek guztiak aintzat hartuta, behin-betiko ingurumen-txostena aurkeztea dagokio orain enpresari, eta ondoren, beste epe bat zabalduko da kaltetuek alegazioak aurkez ditzaten. Epe hori amaitu ondoren, erabakiko du Eusko Jaurlaritzak zentral eolikoa egiteko baimena emango duen ala ez. "Azken fasean gaude, horregatik diogu ezin garela lasaitu", esan du plataformako Imanol Cerdeirak.

"Karakaten zentral elektrikoa eraiki nahi izatea basakeria bat dela uste dugu, bi dorre elektrikoek eurek eta haiek eraikitzeke sortu beharko duten azpiegitura osoak, tartean mendigain osoa zeharkatu eta parke megalitikoak

gurutzatuko duen bideak, txikizioa eragingo duelako elgoibartarrantzat hain berezia den mendi gainean. Enpresak berak ere badaki hori, eta abuztuan argitaratu zuen propio txostena, eragingo dituzten kalteak itzalpean gelditu daitezela", adierazi du Olaizolak. Plataformatik nabarmendu dute Elgoibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean galarazita dagoela inguru horretan parke eoliko bat eraikitzea, baina Ingurumen Administrazio Legea, -Tapia Legea-, horren gainetik dagoela. Iazko abenduan onartu zuen Eusko Legebiltzarrak Ingurumen Administrazioaren Legea, EAJren eta PSE-EEren botoei esker, eta legeak aldaketa ekarri zuen. Iaz arte, edozein proiektu udalerrien baimena behar zuen aurrera egiteko, baina orain, Jaurlaritzak eskumena dauka proiektu bat interes orokorrekoa dela esateko, eta hala dela erabakiz gero, udalek ezin diote uko egin proiektu hori beren herrietan ezartzeari. "Horrek sortzen digu kezka. Zenbateraino dagoen babestuta mendigaina eta hango ondare arkeologikoa", esan du horren harira Imanol Cerdeira plataformakideak [Ingurumen txostenean, 15 metroko babes erradioa aurreikusten dute aztarnategi bakoitzarentzat].

Energia berriztagarriak sustatzea beharrezko jo arren, Udalak ere ez du begi onez ikusten proiektua Karakaterako, eta maiatzean, aho batez egin zuen Green Capitalek agertutako asmoen kontra, Karakate Bizirik plataformatik egindako eskaerarekin bat eginez. Bost arrazoi jaso zituzten mozio hartan: Karakateko mendi ingurua elgoibartarren aisialdirako "leku berezia eta kuttuna" dela; aurkeztutako aurreproiektua Elosua-Plazentzia estazio megalitikoaren mugetan sartzen dela; proiektuak Karakate-Irukutzeta-Agirreburu babes bereziko naturgunean eragin zuzena izango lukeela; Elgoibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrek espreski galarazten dituela parke eolikoak egitea inguru horretan, eta klima aldaketari aurre egiteko energia berriztagarriak sustatzea ezinbestekoa dela, baina mota honetako proiektuek herritarren artean ahalik eta kontsentsu zabalena izan behar dutela eta ezin dutela herrietako ondarearen kontra egin.

Eta bai orduan, eta bai orain, azaroko osoko bilkuran, Elgoibarko udal gobernutik lasaitasun mezuazabaldudute, arriskurikikustenez dutelako.

Honako arrazoiak ematen dituzte: batetik, HAPON Karakate-Irukurutzeta mendilerroko Elgoibarko magala natura-intereseko gune izendatua dagoela eta debekatzeko duela parke eolikoak jartzea, Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapen-dokumentuan ere jasota dagoela debekua eta Karakateko Parkea Antolatzeke Plan Berezia, zeinak Karakateko elementu naturalak eta megalitikoak babestea eta balioestea jasotzen duen. Hala ere, horri ez diote babes nahikoa irizten EH Bilduk eta Ahal Dugu-Podemosek, udalbatzaren azkeneko osoko bilkuran argi gelditu zenez. EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen ondare arkeologikoa gehiago babesteko neurriak eskatuz, eta horretarako, babesa tontorreraino zabaltzea eskatzen zuen, azkenaldian egin diren aurkikuntzak Jaurlaritzak 2003an ezarritako babes-eremutik kanpo daudela arrazoituta (Ahal Dugu-Podemosen babesa jaso zuen). Udal gobernutik, aldiz, nabarmentzen dute Karakateko ingurua babestea izan dela eta dela euren lehentasuna, eta konfiantza osoa dutela zentzu horretan ematen ari diren pausoetan.



## GIZA KATEA ETA BESTE EKIMENAK

Gipuzkoako Mendiak Aske plataforman bildu dira mendietan eolikoak jartzearen kontra hainbat herritan sortutako plataformak, tartean Elgoibarkoa. Arabako Mendiak Aske plataforma dute erreferentetzat eta Elosun egin zuten lehen agerraldi publikoa urrian. Prentsaurreko hartan salatu zuten orain arte han-hemen aurkeztutako proiektuak ez direla ez iraunkorrak eta ezta berriztagarriak ere, eta proiektu horien lehentasuna ez dela herritarren argindar beharrak eta ongizatea bermatzea. Karakate Bizirik ere horixe azpimarratu dute sorreratik: energia berriztagarrien alde daudela, baina ez edozein prezioetan. "Ez dugu mendietan txikiziorik egiterik nahi!". Eta mezu hori zabaltzeko antolatu dituzte egin dituzten ekimen guztiak eta iragarri dituzte beste batzuk, handiena hilaren 26rako.

Ekintza horiek prestatzeko eta prozesuari jarraipena egiteko eguenero elkartzen dira Karakate Bizirik plataformakoak Morkaikoren lokalean, 19:00etan (Errosario kalea, 17). Talde irekia da, "askotarikoa", eta nabarmendu dute bulegoko atea zabalik dutela taldera batu nahi duenarentzat.

Era berean, sare sozialetan ere badaude eta harremanetarako posta elektronikoko bat ere badute: [karakatebizirikelgoibar@gmail.com](mailto:karakatebizirikelgoibar@gmail.com).

### BIHAR, AZAROAK 19

Karakateko Igoera jokatu dela probestuta, postua jarriko dute Karakaten, sinadurak biltzeko eta materiala saltzeko. Taldea argazkia ere aterako dute.

### AZAROAK 20, DOMEKA

Txilarre, Lizagarzar eta Abatetxe baserrietara bisita, hango autokontsumo instalakuntzak ezagutzeko. 15:30ean abiatuko dira IMko aparkalekutik. Ez da izenik eman behar.

### AZAROAK 26, ZAPATUA

Giza katea osatuko dute Kalegoen plazatik Maalara. Gutxienez 300 lagun behar dituzte. 12:30ean bilduko dira Kalegoen plazan eta aterki beltz bana eramateko eskatu dute. Hileko azken ferriako txosna ere Karakate Bizirik plataformak kudeatuko du egun horretan.

## Mendaron igerileku irekiak egiteko leudekeen hiru aukera aurkeztu ditu Mendaroko Udalak

Igerileku irekiak eraikitzeko hiru alternatiba aurkeztu zituen eguaztenean Udalak: Maite Maiora kirolgunearen azpiko aldean, Bixuete baserri paretik Andikoetxe arteko sakonean, eta ospitale ondoan, heliportua dagoen aldera. Sestra ingeniaritza enpresak egin du azterketa eta alkateak zehaztu du Udalak zabalduko inkestari herritarrek emandako erantzunetan oinarrituta eman ziotela azterketa egiteko enkargua. Lehenengo aukera, kirolgune azpikoa, lur publikoan legoke, baina beste bi aukerarako lurrak jabetza pribatukoak dira eta, landa eremu gisa daude katalogatuta, beraz lurrak eskuratu eta Hiri Antolamendurako Plana aldatu beharko litzateke, ezertan hasi aurretik.

Nolanahi ere, eguaztenean aurkeztutakoa "abiapuntua" baino ez dela nabarmendu zuen. Orain hurrengo, hiru aukera horiek herritarrei aurkezteko modua aztertuko dute, eta ondoren, bideragarritasun-plana egin beharko lukete, kostua, inbertsiorako dirua nola lortu eta geroko mantentze-lanen kudeaketa kontuak lotzeko, besteak beste. Aurreikuspen gisara, Aiako ereduaren urteko aurrekontua aurkeztu zuten. Aiako igerilekuetan urtero abonatu eta ohiko sarreretatik lortzen dituzten diru-sarrerak 33.398 eurokoak dira, eta gastuak, berriz, 48.000 eurokoak. Horiek denak eginda, "ate joka" hasi beharko luke Udalak gero, "Mendaroko Udalak ezin duelako hau dena finantzatu", alkatearen arabera.

Arregik esan zuen kirol-gune berria, askotariko gelak, igerilekua eta bidegorria lehenetsi zituztela mendarotarrek, eta hasieran "Mintxetaren tankerako" kirol-gunea aurreikusi zuela Udala gobernua Mañuska berri ondorako, baina baztertu zutela igerilekuak han eraikitzeko aukera, udan azkar hartzen duelako itzalak inguru hori. Aurkeztu dituzten beste hiru aukerak ere badituzte "alde onak eta txarrak", eta denak aztertuta, industrialdeko aukera hobetsi du Sestrak. Hasteko, aire libreko igerilekuak egiteko araudiak jasota dauka biztanle kopuruaren arabera zenbateko piszinak eraiki behar diren eta Mendaro bezalako herri bati gutxienez 120 metro koadrokoa dagokio. "Txikiagia" iritzi diote horri, baina, eta gutxienez



200-250 metro koadrokoa behar dela erabaki dute. Hiru kokaguneetan da egingarria hori. Lehenengo aukera baztertzeko, hala ere, lau arrazoi eman zituen bereziki Sestra enpresak: intimitate gutxioko lekua dela, etokizunean igerilekuak handitzeko aukerarik ez litzatekeela egongo inguru horretan, 40 bat autorentzako aparkalekua sortzea eskatzen duela dimentsio honetako igerilekuak eta nekez sortu ahalko liratekeela erdiak ere [hogei erabiltzaileko aparkaleku bat sortzea eskatzen du araudiak] eta "kostu handiko" euste-horma eraiki beharko litzatekeela. Kostuetara etorrita, 4 milioi eurokoa aurreikusten dute, metro koadroko 1.500 eurokoa.

Bigarren aukerak, ospitalekoak, espazio zabalagoa hartzea ahalbidetzen du, eta ondorioz igerileku (500 m<sup>2</sup>) eta berdegune handiagoa eraikitzea. "1.000 bat erabiltzaile guztira: 350 bat uretan, eta gainerakoak, zelaigunean". Baina baditu pegak. "Ez dugu bateragarria ikusten era honetako dibertimenduzko gunea ospitale baten ondoan eta gainera, trafiko arazoak handituko lirateke". Aparkalekuak ere ospitaleko errepidearen ertz batera sortu beharko lirateke, eta hori traba da, lehendik ere trafiko arazoak badaudelako. Kostua 3,5 milioi eurokoa izango luke, metro koadroko 900 eurokoa. Hirugarren kokagunea, industrialdekoa, hobesten du enpresak. Neurritan bigarren kokagunearen parekoa litzateke eta sarbide berritik iritsiko litzateke ia bertaraino eta handik bide bat zabalduko lukete igerilekuetara, "trafiko arazoak beraz hutsak lirateke". Honako bi eredu daude, eta 4,5-5,10 milioi euro arteko kostua izango lukete.



## ILUSIOA ZABALTZEN SEGITZEKO ERRELEBO BILA

✍ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea

**35 urtez jardun du Elgoibarko Katekesia taldeak Gabonetako jaiotza lehiaketa eta errege magoen desfilea antolatzen, eta aurtengoa azkena izango dela iragarri du. 15 bat laguneko taldea ibiltzen da bi ekitaldi horiek antolatzen, baina adinean aurrera doaz guztiak eta lan hori lagatzeko ordua dela erabaki dute. Errelebo bila dabilta, ilusioa zabaltzen jarraituko duen talde bila. Interesatuak azaroaren 30a baino lehen eman beharko dute izena Kultura Sailean: [kultura@elgoibar.eus](mailto:kultura@elgoibar.eus) helbidera idatzita edo 943 742 158 telefono zenbakira deituta. Prest dauden lagunak aurrez aurre aurkeztuz gero, laga behar dutenengandik ikasteko aukera izango dutela azaldu dute Udaletik.**

Seme-alabak kristau ikasbidean hasi eta jaunartzea egin behar zutenean sartu ziren Begoña Elizondo eta Pilar Gonzalez katekisten taldean, eta umeei katekesia emateaz gain, Gabonetako jaiotza lehiaketa eta errege magoen desfilea antolatzeko lantaldean ere sartu ziren. Katekistak ziren guztiak, dena borondatez egiten zuten, eta haien lana goraiatu dute: "Haien lanari eman diogu guk segida, baina gure aurretik zeudenek sekulako lana egin zuten. Arropa guztiak ere beraiek josi zituzten". Haiek laga zutenean hartu zuten ardura egungoek. Jaiotza lehiaketak ez die horrenbesteko lanik ematen, baina errege magoen desfilea antolatzeak badu meritua. 15-16 bat laguneko taldea aritzen da antolakuntzan, denak emakumezkoak. Hala

ere, badute gizonezko jubilatuen talde bat ere beraien bueltan, jaiotza bizidunarekin laguntzen diena, lastoa inguratzen, plaza atontzen... "Lan asko daude egiteko, eta jende asko behar izaten da. Horien lana ere eskertzekoa da". Bi hilabete behar izaten dituzte dena antolatzeko, baina batez ere, azken bi asteak izaten dira gogorrenak. Zailtasunak izaten dituzte, eta azkenaldian errege papera betetzen duten gizonezkoak aurkitzea ere kostatzen zaie. Zaldiak urduri jartzen dira, egun haizetsua tokatzen denean zuzien kezka ere izaten dute, goxokiak batzeko orduan ere arrisku uneak sortzen dira, baina zorionez, beti dena ondo irten izan da, eta zailtasunak zailtasun, umeen ilusioagatik, merezi duen lana dela aitortu dute barren-barrenetik: "Santa Klaratik abiatzen

gara, eta plazara iristean umeen ilusio aurpegiak ikustean ahazten zaigu lan guztia. Zoragarria da umeen irribarre horiek ikustea".

### ASPAIDITIK DATORREN EKIMENA

Tradizio handiko ekimena da errege magoen desfilea Elgoibarren. Ez dakite ziur noiz hasi ziren ekimen hau antolatzen herrian, baina 36ko gerraren aurrekoa dela esan dute, eta gerraren eraginez urteren batzutan etenda egon zela garai hartan. Bestela, hutsik egin gabe antolatu izan dute desfilea, Koronabirusaren pandemia iritsi zen arte. Osasun egoerak baldintzatuta ekimen jendetsuak bertan behera laga zituzten 2021ean, eta horren barruan erregeen desfilea bera ere bai. 2022an, azken unean antolatu zuten "hala moduzko" desfile bat, baina ia umerik gabe. "Pandemiak etena ekarri zuen, gelditu egin gintuen. Hasieran pena hartu genuen, baina aldi berean, lasaitua ere bai". Pandemiaren etenak lagundu zien ikusten aurretik ere sentitzen zutena: nekatuta zeuden, eta hasiak ziren euren buruetan antolakuntza lanak laga behar zituztela pentsatzen, baina ez ziren esatera ausartzen: "Aurtengo lehen bilera egin genuenean esan nien nire azken edizioa izango zela", esan du Elizondok, eta hori entzunda, Pilarrek ere lasaiago erantzun zion, berak ere laga nahi zuela.

### BORONDATEZKO LANA

Elgoibarko katekisten taldeak lan asko egiten du borondatez, eta parte-hartze handia dute herrigintzan. Jaiotza lehiaketa eta errege magoen desfileaz gain, sanbartolomeetako jubilatuen eguneko bazkarian ere beraiek jarduten dute zerbitzari lanetan, Jubilatuen Astearen barruan 80 urtetik gorakoen bazkarian ere bai, San Lazaro egoitzan ere txokolate jana egiten dute... "Nekatuta gaude, eta atsedena hartzeko ordua iritsi zaigu", esan dute.

### ERRELEBOAREN ORDUA

Erreleboaren ordua iritsi da. Udalak deialdia egin du, eta interesatuek azaroaren 30era arteko epea dute izena emateko. Aurten elkarrekin lanean aritzeko prest daude, erreleboa prestatzen laguntzeko eta lantalde berriari antolakuntzaren nondik norakoak azaltzeko. Eta aurrerantzean

*"Santa Klaratik abiatzen gara eta plazara iristean umeen ilusio aurpegiak ikustean lan guztia ahazten zaigu"*

lantalde berriak antolatuko luke, bere erara. Jakitun dira erlijioak eta elizak ez dutela garai batean besteko jarraitailerik, eta herria aldaketa oro onartzeko prest egon beharko litzatekeela uste dute: "Garai batean katekesian ibiltzen ziren umeek zuten lehenetasuna errege magoen desfilean, baina urteak dira baldintza hori kendu genuela, eta antolakuntzan gabiltzanok ere gaur egun ez gara katekistak".

Dena dela, beraiek erabakia hartuta dute, eta erreleborik ez badago ere, badoaz. Eskerrak eman nahi dizkiete urte hauetan guztietan bidelagun izan dituzten guztiei, eta badakite izenak ematen hasita norbait ahaztuko dutela, beraz izenik eman gabe, baina aipatu dituzte taldeak: Batetik, Udal Brigada izan dute gogoan, errege desfilearen egunean egiten duten lan guztiagatik; jubilatuz gizezkoen taldea ere eskertu dute, jaiotza bizidunaren ardura ia bere osoan hartzen duelako; taldeko emakume guztiak, bai egungoak eta baita bidean erortzen joan direnak, "denak izan dira oso garrantzitsuak"; Armueta harategia, txorizo ogitartekoak prestatzen egiten duen lanagatik; gurasoak, umeak margotzen eta ogitartekoak banatzen laguntzeagatik... "Jende asko inplikatzan da, eta une honetan den denei eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen".

2023ko urtarrilaren 5ean iritsiko dira Ekialdeko Errege Magoak, beti bezala Santa Klara aldetik, zaldi gainean. Jaio berria den Jesus haurrari urrea, intzentsua eta mirra banatuko dizkiete eliza atarian, eta herri osoa zeharkatuko dute ondoren, herritarrak agurtuz. Ez dira San Lazaro egoitzako kideekin ahaztuko, eta geldialdia egingo dute bertakoei opariak banatzeko. Kalegoen plazan amaituko dute desfilea, eta umeen gutunak jasoko dituzte. Ilusioa zabalduko dute, eta Elizondok eta Perezek espero dute ez izatea azkena: "Pena handia emango liguke tradizio hau galtzeak, umeengatik batez ere", esan dute.

## Kantuan amaituko dute Euskaraldia Elgoibarren abenduaren 1ean, 'Kantu bat gara' kontzertuarekin

Dantzan hasiko dute bihar Euskaraldia Kalegoen plazan 13:30ean, eta abenduaren 1ean egingo dute amaiera ekitaldia. Kantuan emango diote amaiera aurtengo edizioari, Jon Maiaren *Kantu bat gara* kontzertuarekin. Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Euskaraldia Taldeak antolatu dute emanaldia alkarlanean, eta Herriko Antzokia izango da, 19:00etan. 30 urte dira Jon Maia bertsolariak bere lehenengo kanta idatzi zituela, Negu Gorriak taldearen *Gure jarrera* diskorako. Orduetik, Maiak Euskal Herriko hainbat eta hainbat talde eta abeslariarentzat idatzi ditu kantuen hitzak, eta 30 urteko letragle ibilbidea ospatzeko, diskoa kaleratzeaz gain, zuzeneko emanaldiak ematen dihardu, Pello Ramirez, Gorka Hermosa eta Nacho Soto musikariekin. Euskal kulturaren, historiaren eta identitatearen ikuspegi partikularra zabaltzen du Maiak bere kantutegiaren bidez, hitzaren emozioa kantu bihurtuz eta publikoaren konplizitatea bilatuz. Sarrerak salgai daude dagoeneko: [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) webgunean erosi daitezke edo larunbatero, leihatilan, 18:15etik 20:45era. 10 euroan (Gazte Txartelarekin, 3 euro) daude salgai.



## 200 kilo gaztaina banatu zituen Galiza Etxeak Magosto Egunean



Bi urteko etena egin dute, pandemiak behartuta, baina aurtten, udazkeneroko ohitura berreskuratu du Galiza Etxeak, eta zapatuan ospatu zuten Magosto jaia, Maalako parkean. Ourensetik (Galiza) ekarritako 200 kilo gaztaina erre zituzten hiru danbolinetan, eta debalde banatu zituzten herritarren artean. Gaztaineraz gain, Galiziako produktuak erosteko aukera ere izan zuten Maalara gerturatutakoek. Ospakizunak balio sinboliko berezia du Euskal Herrian ere, antzina gaztaina neguko oinarritzko elikagaia zelako, eta udari agur esan eta sasoi ilunagoari aurre egiteko baliatzen zutelako jaia.

## Elgoibarko dantzariak Euskal Herriko auresku txapelketan hartu dute parte

Hondarribin jokatu zuten asteburuan Euskal Herriko auresku txapelketa nagusia, eta Elgoibarko hiru dantzari hartu zuten parte: Jon Etxeberriak, Eneko Etxanizek eta Maddalen Oñederrak. Dantza eskolako arduradunen esanetan, maila bikaina eman zuten hirurek eta lan ona egin zuten. Kanporaketa honekin bukatu da nagusien txapelketa datorren urtera arte, baina dantzari hauek dantzan ikusteko aukera izango da Gabonetako kontzertuan. Urtarrilean, bestalde, gazteen auresku txapelketa hasiko da.



## Santa Zezilia Eguna ospatzeko hainbat ekitaldi egingo dituzte Elgoibarren eta Mendaron

Azaroaren 22an da Santa Zezilia Eguna, eta musikarien eguna ospatzeko, hainbat ekitaldi egingo dituzte datorren astean zehar, Elgoibarren zein Mendaron. Egunean bertan Elgoibar Ikastolako LHko ikasleek dantzaldia egingo dute Maalako parkean, 10:00etatik aurrera. Musika Eskolako talde instrumentalek, berriz, hilaren 21ean eta 23an emango dituzte kontzertuak Musika Eskolako auditoriumean, eta eguazteneko saioaren ostean, diplomak ere banatuko dizkiete ikasleei. Hilaren 24rako, berriz, Betsua txarangarren eta musika eskolako trikitilarien kalejira antolatu dute.

Mendaron hilaren 21ean egingo dute ospakizuna. Musika eskolako trikitilari eta pandero-joleek kalejira egingo dute, eta auzo bakoitzan geldialdia egingo dute, euskal dantzak dantzatzeko. 18:00etan hasiko da.



### Parrokiako abesbatza

San Bartolome parrokiako abesbatzak, bestalde, bihar ospatuko du Santa Zezilia. 19:00etatko mezan parte hartuko dute, eta bukaeran abesti ezagun batzuekin kontzertu txiki bat emango du, Txomin Maidaganen zuzendaritzapean. Horrez gain, abesbatzatik herritarrei deia egin dieite taldean parte hartzeko. Entseguak martitzenetan egiten dituzte Trenbide kaletik sarrera duen Parrokiako lokalean, 19:30ean.

### Auzoak hurbiltzeko balio izan du Jon Maiaren hitzaldiak Mendaron

Mendaroko udaletxeko pleno aretoa bete egin zen Jon Maiaren *Desde Extremadura al euskera* hitzaldia entzuteko. Erdal eta euskal hiztunen artean espazio partekatu bat bultzatzeko eta bizipenak, esperientziak, emozioak eta sentimenduak partekatzeko eta hizkuntzaren inguruan ditugun jokabideen inguruan hausnartzeko antolatu zuten hitzaldia Arno guraso elkarteak, Euskara taldeak, UEMak eta Mendaroko Udalak, Euskaraldia ariketa sozialaren harira, eta bereziki erdal komunitateari zabaldutako hitzaldia zela azpimarratu zuten. Horregatik, gaztelaniaz eman zuen Maiak. Extremadurako familia batek -break- hizkuntzaren,



nortasunaren eta munduan izan behar duen lekuaren inguruan izan duen prozesuaren berri eman zuen Maiak, bere bizipenetan oinarrituta, eta hunkituta jarraitu zuen publikoak. Antolatzaileak ere pozik agertu dira hitzaldiak izandako harrerarekin.

### Oinarrizko euskara ikastaroa emango du Udal Euskaltegiak

Udal Euskaltegiak euskara ikasteko AISA I ikastaroa antolatu du, gure herrian bizi diren jatorri askotariko herritarrek euskarara hurbiltzeko aukera izan dezaten. Ikastaroa 60 ordukoa izango da, eta Elgoibarko Udal Euskaltegian emango dute astearte eta ostegun (goizez edo arratsalde), 2023ko urtarrilaren 10etik maiatzaren 11ra bitartean. Ikastaroan parte hartu ahal izateko 16 urte beteta izan behar dira eta 25 € ordaindu. Informazio gehiago: 943 742 731 / [udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus](mailto:udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus)

## Sijjin taldearen kontzertua gaur, sotoan



Sinuösek antolatuta, kontzertua emango du gaur Sijjin taldeak Kultur Etxeko sotoan. Alemaniako eta Euskal Herriko musikariek osatzen dute taldea, eta munduan zehar hainbat jaialditan ibili ondoren, gaurkoa izango da Euskal Herrian emango duten estreinako kontzertua. Old school death/trash metal estiloa lantzen dute. 23:00etan hasiko da, eta sarrerak 5 euroan jarriko dituzte salgai.

### Irudi kontakizun lehiaketa antolatu dute DBH eta Batxilergokoentzat

Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika Sailak irudi-kontakizun lehiaketa antolatu du DBHko eta Batxilergoko ikasleentzat. Irudiz eta hitzez osatutako autorretratua izango da parte hartzaileek sortu beharreko lana. Lanek irudia eta hitza



(gehienez 300 karaktere) izan beharko dute, eta euskaraz idatzita egon beharko da. Irudi-kontakizunak jasotzeko azken eguna abenduaren 2a izango da eta herriko dendetan gastatzeko 100€ko bonoa jasoko du irabazleak. Lanak [atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus](mailto:atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus) helbidera bidali beharko dira, edota Elgoibarko Izarraren bulegora ekarri (Aita Agirre 3, 3 ezkerre)

### Buru nahasmendua duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko gakoak emango ditu Agifesek Elgoibarren

Buruko osasun arazoa duten pertsonen eta senideen Gipuzkoako elkarteak (Agifes) hitzaldia antolatu du datorren asterako. Buru nahasmendua duten pertsonen eta euren senideen bizi-kalitatea hobetzeari buruzkoa izango izango da, eta Virginia Pazos elkarteko gizarte-langileak emango du. Azaroaren 24an, ostegunean, izango da, 18:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### Mekako ikasleak orientazio txapelketa batean parte hartzen ari dira



Agenda2030 programaren barruan Meka Lanbide Heziketako ikasleak orientazio txapelketa batean parte hartzen ari dira. Orientazioa, talde-lana, erabakiak hartzeko gaitasuna eta QR kodeen erabilera sustatuko dituzte proba honetan. Ikasleek mapa eta pista orria izango dituzte eskuartean, Elgoibarren ezkatuta dauden QR kodeetara iritsi ahal izateko, eta ondoren, Agenda2030eko garapen iraunkorreko helburuekin (GIH) zerikusia duten galderak erantzun beharko dituzte. Merkatu plaza, Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ), Lanbide, EPA (Helduen hezkuntza) zentrua, Lila emakumeen etxea, Makina Erremintaren Museoa, auto elektrikoak kargatzeko puntua, Mintxeta kirol gunea, Giza Eskubideen parkea, San Frantzisko iturria, Caritas elkarte... bisitatuko dituzte besteak beste.


Txankakua merkataria elkartearen eskutik, herriko komertzioetan erosketak egiteko bonoak izango dira sariak.



# Igor Torres eta Pilar Arriola izan dira elgoibartar azkarrenak Behobia-Donostian



29.732 lagun zeuden izena emanda 57. Behobia-Donostia lasterketan parte hartzeko eta 25.753k hartu zuten parte. Horietatik 24.184 korrikalari iritsi ziren Boulevardeko helmugara eta horien artean 39 elgoibartar eta 9 mendaroar (37 elgoibartar eta 8 mendaroar izan ziren 2021ean). Kataluniarrak albiste izan dira aurten, estreinakoz



kataluniar gehiago izan direlako gipuzkoarrak baino izena eman duten korrikalarien artean, 6.478 guztira. Eta, lasterketa egunean ere zeresana eman zuten kataluniarrek, hango antxixkariak izan zirelako azkarrenak 20 kilometroak osatzen: Nan Oliveras (1:01:29) eta Cristina Silva (1:11:32). Gure ordezkariak dagokionez, Igor Torres Castillak egin zuen denbora onena gizonetzkoetan. Sailkapen nagusiko 147. postua eskuratu zuen 01:11:17-ko denbora eginda. Emakumezkoetan Pilar Arriola Diez izan da azkarrena (01:47:07). Torresek azaldu duenez, 2019an lortu zuen bere marka pertsonaletik (1:10:05) urrun gelditu den arren, bazekien zaila izango zuela orain hiru urte egindako denbora ontzea. Are gehiago, Behobia-Donostia ez baita denboraldi honetan bere buruari jarri dion erronka nagusia, bi aste barru jokatu duen Donostiako Maratoia baizik. Prestaketa guztia maratoira bideratuta daukala azaldu du.

## ELGOIBARTAR ETA MENDAROARREN EMAITZAK

Postua	Izen-abizenak	Denbora
--------	---------------	---------

### Elgoibartarren sailkapena

147	Igor Torres Castilla	01:11:17
676	Gorka Cbrian Arregui	01:11:17
810	Ander Rodriguez Luis	01:19:32
1551	Ion Irazabal Garciandia	01:24:15
1726	Oier Irazabal Garciandia	01:24:57
2148	Mikel Zubiaurre Elorza	01:27:07
2578	Markel Amutxastegi Yarza	01:28:38
2794	Jose Antonio Ruiz del Rey	01:29:25
3045	Martin Dominguez Lopez	01:30:14
3048	Jon Dominguez Cid	01:30:15
4963	Asier Cordon Blazquez	01:35:54
5396	Gurutx Quintano Aguirrezabal	01:36:59
6131	Angel Eguren bBlaustegi	01:38:36
6714	Denis Saiz Saborido	01:39:44
7339	Ander Martin Sanchez	01:40:57
7677	Aitor Arruabarrena Gurrutxaga	01:41:38
7744	Jon Romar Iriarte	01:41:45
7965	Sergio Martinez Roman	01:42:18
8291	Unai Usatorre Juaristi	01:42:58
10570	Pilar Arriola Diez	01:47:07
10572	Ssier Arenal Bilbao	01:47:07
11575	Asier Murua Juaristi	01:48:55
12059	Javier Hernando Albert	01:49:48
13272	Amaia Jauregi Barrutia	01:52:02
13273	Ainhoa Aduriz Garcia	01:52:02
13728	Iker Panizo Diego	01:52:49
14255	Eneko Arrizabalaga Garate	01:53:47
14290	Gotzon Gurruchaga Bengoechea	01:53:51
14541	Eider Iriondo Ansola	01:54:17
15284	Beñat Konde Untzilla	01:55:38
16189	Patxi Loiola Urain	01:57:24
16190	Miren Lahoz Idarraga	01:57:24
17221	Miguel Angelmontes Crespo	01:59:15
17482	Ariana Nogales Babarro	01:59:48
17484	Iñigo Sabando Loyola	01:59:48
17571	Alexander Bilbao Aldekoa-Otalora	01:59:59
17740	Samuel Ruiz de Lorenzo	02:00:25
20332	Jose Jesus Alzaga Ansola	02:07:21
21827	Eider Telletxea Agirre	02:12:50

### Mendaroarren sailkapena

1188	Miguel Angel Urkiza Anakabe	01:22:15
1342	Patxi Salegi Martija	01:23:11
1638	David Garcia Fernandez	01:24:36
3156	Israel Soto Calderon	01:30:36
3774	Borja Rodriguez Barreras	01:32:38
6636	Igor Ezenarro Arriola	01:39:37
17939	Manuel Agea Cocera	02:00:54
19275	Aitzol Urain Epelde	02:04:16
24065	Imanol Esnaola Alba	02:38:30

## Uxue Ansozregik hirugarren egin du Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusian



Ikusmira handia sortu du Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiaren hirugarren edizioak, eta 3.000 ikusle inguru batu ziren joan den domekan Bilbao Arenan jokatu zuten finalean. Kirol lehiak gainera, Süne, Zetak eta Zea Mays taldeen musika emanaldiez gozatu ahal izan zuten Bilboko Miribillan batutako ikusleek. Herri kiroletara jende gehiago erakartzeko ahaleginean formula berriak probatzen ari dira txapelketa honetako antolatzaileak. "Helburua da euskal kirola eta kultura sustatzea, ikusgarritasun handiagoa ematea eta herri kiroletara jende

gehiago erakartzea, liga profesionalak dituzten kiroletan, futboleant, beisboleant edo arrauneant gertatzen den moduan". Emakumezkoen lehiak, 45 hatzbeteko 4 enbor ebaki behar izan zituzten hiru lehiakideek eta Nerea Arruti urnietarra izan zen azkarrena. Hamabi minutu eta 16 segundotan moztu zituen enborrak. Bigarrena, Irati Astondoa izan zen, 15 minutu eta 58 segundu eginda eta, hirugarren postuan, Uxue Ansozregi mendarorara sailkatu zen, 17 minutu eta 52 segundoko denborarekin. Gizonetzkoetan Julen Alberdi *Txikia IV.* azkoitiarra gailendu zen.

### Kirol Federatuaren Urteko Sarietarako hautagaiak aurkezteko epea, zabalik

Abenduaren 20an banatuko dituzte 2022ko Kirol Federatuaren Urteko Sariak, baina aurrez, euren hautagaitzak aurkeztu beharko dituzte Elgoibarren dauden 18 kirol elkarteek. Abenduaren 12rako aurkeztu behar dituzte kirol klubek beren hautagaitzak, e-posta bat bidalita [ramon@elgoibar.eus](mailto:ramon@elgoibar.eus) helbidera. Mezuan zehaztu behar dira sarituaren izena, abizenak eta saria emateko arrazoia. Lagun bakararra proposatu beharko dute, sari hauetan aurrez saririk irabazi gabea. Kirolaria, kirolari ohia, entrenatzailea, zuzendaria, laguntzailea, babeslea edo klubaren ibilbidean zerikusia izan duen edozein pertsona proposatu daiteke saria jasotzeko, baina antolatzaileek nabarmendu dute emakumeen presentzia bermatu behar dela. Datorren abenduaren 20an ospatuko



dute 2022ko Elgoibarko Kirol Federatuaren Urteko Sariak banatzeko ekitaldia, 19:30ean, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako auditoriumean. Iaz moduan, hogeit hamar sari banatuko dituzte: kirol talde bakoitzak bere saritua izango du, -guztira 18 dira-, eta horiez gainera, beste bi sari ere emango ditu Udal Kirol Patronatuak.

## Ohi baino orduerdi lehenago hasiko da bihar Karakateko Igoera

Egun bete-betea izango da azaroaren 19a Elgoibarren. Euskaraldiari hasiera emateko jaiak, 'Gaztiok ere Bagaoz martxan' gazteentzako jaiak eta Karakateko igoerak bat egingo dute bihar, eta ziurtatuta egongo da jai giroa kalean zein mendian. Morkaiko mendi taldekoek orduerdi aurreratu dute Karakateko Igoeraren irteera, jendeak Euskaraldiaren hasiera jaira joateko aukera izan dezan. Hala, 10:30ean abiatuko dira saltakariak Kalegoen plazako frontoiko frontisetik. Gero, nahi duten bidetik igo beharko dute Karakateko tontorreraino, beti ere baserritarren atesareak eta itxiturak errespetatuz. Tontorrean dagoen puntu geodesikoa ukitzean bukatuko dute igoera. Ohiko ibilbideak lau kilometro inguruko luzeera du, eta 700 metrotik gorako desnibel positiboa (Elgoibarko herrigunea 42 metroko garaieran dago eta 756 metrotara dago Kortazar gaina). Izen ematea doakoa da eta 8:30etik 10:00etara bitartean egin ahal izango da Kalegoen plazan. Antolatzaileek 125 lagunetan jarri dute parte-hartzaileen muga. Iaz, 78 lasterkarik hartu zuten parte eta Mikel



Beunza (Alkots, Nafarroa) eta Andrea Garai (Gasteiz, Araba) izan ziren azkarrenak. Probako errekorra Iban Muruak ezarri zuen 2017an: 26 minutu eta 17 segundo. Emakumezkoetan Maite Maiorak du errekorra, 2016an ezarria: 31 minutu eta 37 segundoan.

## Jabier Osoro sailkapeneko hirugarren postuan ailegatuko da Euskal Herriko bola txapelketako azken tiraldira

Leintz Gatzagan jokatu zuten Euskal Herriko bola-joko txapelketako bosgarren jardunaldia. 67 parte-hartzaile lehiatu ziren, eta Santos Muñoz (Azkoitia-Floreaga elkarte) gailendu zen, egin zituen hiru tiraldietan 7 txirlo botata. Bittor Astigarraga (Eibar-Asola Berri) sailkatu zen bigarren postuan, zazpi txirlo jota, eta Jose Angel Fernandezek (Markina-MX3T) egin zuen hirugarren, sei txirlorakin. Bolari elgoibartarrak ez dira nabarmendu txapelketako azken bi jardunaldietan, baina jokaturako bost jardunaldietan erakutsi duen erregulartasunari esker, Jabier Osoro (San Migel) sailkapen nagusiko hirugarren postuan ailegatuko da azken tiraldira. Santos Muñoz dago lehen postuan, 23



txirlorakin. Txirlo bat gutxiago bota du orain artean Jose Angel Ogizak (Mallabia-MX3T), eta 20 ditu Osorok. Bihar, hilak 19, jokatu dute azken jaurtialdi erabakigarria Aramaioko Etxaguen elizateko bolatokian (12:00etan).

## JOSEBA TAMAYO

Triatloilaria

✍️ Asier Orbea

Munduko triatloi txapelketan lehiatu zen Joseba Tamayo Rojo joan den urriaren 29an, AEBetako Utah estatuan, eta joan den astean itzuli zen etxera, hango bazterrak ezagutzen ibili eta gero. Alcottan egiten du lan eta eskerrak eman dizkie prestakuntzarako eta bidaiarako eman dizkien erraztasunengatik.



## *“Triatleta profesionalen pare sentiarazi gaituzte munduko txapelketan”*

**Ironman 70.3 World Championship txapelketan hartu duzu parte AEBetako St. George hirian. Zer desberdintasun aurkitu zenituen hemen jokatzera ohituta zauden triatloiekin alderatuta?**

Hasieratik igarri nuen hura beste kontu bat izango zela, ohituta nagoenetik apartekoa. Lasterketa jokatu baino bi egun lehenago lehiakideak aurkezteko desfilean hartu genuen parte, banderen desfilean. Olinpiar Jokoen itxura hartu nion ekitaldiari, herrialdez herrialde aurkeztu gintuztelako. Lasterketa egunean, autobusetan eramán gintuzten probaren hasieraraino, goizaldeko 5:30ean, eta eserleketan ere gure izenak zituzten ipinita. Horrelako detaileetan igartzen zen probak zuen maila. Eta noski, Estatu Batuetan egonda, abeslari bat ere ekarri zuten herrialdeko ereserkia abestera. Han oso ohikoa da kirol ekitaldien hasieran ereserkia abestea. Arreta deitu zidan zelako errespetua zieten amerikarrek une horri. Ereserkia entzun orduko egiten ari zirena laga eta zut-zutik jarri ziren. Isiltasuna egin zen bat-batean. Kuriosoa izan da halako esperientziak barrutik bizitzea. Errepideak eta autopista bat ere erabat moztu zituzten guk bizikletako proba egin ahal izateko. Beste detaile bat gehiago emango dizut. Partaide bakoitzak boluntario bat genuen behar genuenerako. Bizikletako zatiaren amaieran bera arduratzen zen bizikleta zegokion lekura eramateaz, eta probaren amaieran ere boluntario bat hurbiltzen zitzaigun, dominarekin, toalla batekin eta oparizat eman ziguten kamiseta batekin. Proba

ostean jateko zerbait bilatzen ere laguntzen zuten boluntario horiek. Han lehiatu ginen asko eta asko triatleta profesionalak izan ez arren, hala sentiarazi gintuzten, aipatu ditudan detaile guzti horiei esker. Primerakoa izan zen antolakuntza.

**Zure kategoriako 86. postuan sailkatu zinen 4:33:39ko denborarekin. Gustura gelditu zinen egindako probarekin?**

Igeriketako proban galdu nuen triatloia nik nahi nuen denboran egiteko aukera, 4:15 - 4:30 bitartean. Nire aurretik igerian hasi ziren taldeak motel zihoazen eta uretan oso zaila da erritmo motelagoan doazenak aurreratzea. Urrearen balioko denbora galdu nuen. Sand Hollow natura-parkean dagoen laku batean egin genuen igerian, 1.930 metroko distantzian. Triatloia goizean goiz hasi zen 4 gradurekin, uretan ordea 17 gradu zeuden. Eta uretatik irten ostean 7 gradurekin hasi genuen bizikletako ibilbidea. Bustita eta hoztuta. Unerik larrienak izan ziren. Hotz handia pasa nuen bizikletako lehen kilometroetan eta egurra eman behar izan nion berotan sartzeko bada ere. Hamar bat kilometro behar izan nituen hotzikarak atzean lagatzeko. Temperatura aldaketa bortitz horiek eragin handia dute gorputzean, lan gehiago eginarazten baitiote. Baina, halakoetan esaten den moduan, guztiok lehiatu ginen baldintza berdinetan, eta moldatzen asmatzea da kontua. Nik lortu nuen egoerari buelta ematea eta 38 kilometro orduko batez besteko abiadura

markatu nuen bizikletako probaren amaieran. 90 kilometroko ibilbidean lehiatu ginen, 1.000 metroko desnibelarekin. Gustura gelditu nintzen bizikleta gainean egindako lanarekin.

### **Bidali dizkiguzun argazkietan ikus daitekeenez, paraje ikusgarrietatik ibili zineten bizikletan.**

Bai, Sand Hollow parke naturaletik abiatu eta Red Cliffs Kontserbazio Eremu Nazionaletik eta Snow Canyon parke naturaletik igarotzen zen ibilbidea. Zailtasun handiena Snow Canyonen genuen, 75. kilometro inguruan zegoen 1.200 metroko garaierako mendatea. Autopistatik igarotzen zen ibilbidearen zati bat. Abiadura handian joateko aukera ematen zuen zati horrek, zuzengune luzeak eta gora behera askokoak baitzituen, txirrista itxurakoak. Bizikleta laga ostean, 21 kilometroko saltakako probarekin amaitu genuen triatloia. Bi itzuli eman genizkion golf zelai bat gurutzatzen zuen 10,5 kilometroko zirkuitu bati. Ibilbidea ez zen batere laua, dezenteko desnibela zuen eta horrek eragina dauka giharretan, batez ere biziketan ibili eta gero. Asko sufritu nuen jaitsieretan, koadrizeps-ak kargatu zitzaizkidalako. Azkeneko kilometroa oso gogorra egin zitzaidan arren, gertu nuen helmuga eta lortu nuen amaitzea. Kilometroa lau minutu eta 10 segundoan egin nuen batez besten.

### **Inguruak ezagutzeko aprobetxatu duzu bidaia.**

Bai, duela urtebete lortu nuen sailkatzea, Portugalen, eta dena ondo prestatzeko astia eduki dut. Familiarekin batera joan nintzen Estatu Batuetara. Elgoibartik Madrilera autoz joan ginen, bizikleta hartuta, ez naizelako fio aireportuetaz. Bizikleta hondatzeko arriskua handia dela eta zenbat eta hegazkin bidaia gutxiago egin hobel! Madriletik Los Angeleseraino joan ginen hegazkinez. Han alokairuan autoa hartu eta hiru orduko bidaia eginda ailegatu ginen St. George hirira. Lasterketa jokatu baino astebete lehenago heldu ginen, itsasoko mailatik 700 metrora dagoelako hiria, eta gorputza altuerara ohitu nahi nuelako. Aste hori entrenatzen eman nuen. Elkarrekin entrenatzeko Whatsapp taldea sortu genuen hemendik hara joan ginen zenbait lehiakidek, Azkoitiko eta Bermeoko euskaldunak gehienak. Antolatzaileek erraztasun guztiak eman zizkiguten. Hango unibertsitate bateko azpiegiturak lagatzen zizkiguten igerilekuak eta atletismo pistak. Igerilekuak 15 kale zituen eta hori unibertsitate batekoa zela!. Futbol amerikarrean

## *"Orain atsedean hartuko dut, eta datorren urteko Euskadiko eta Espainiako triatloi txapelketak ahalik eta ondoen prestatzen saiatuko naiz"*

eta beisbolearen jokatzeko zazpi bat joko zelai zituen gutxienez. Autopistako erreia bat ere moztuta zuten guk entrenatu ahal izateko. Ezin gara kexatu, gure saltsan ibiltzeko aukera guztiak genituen eskura. Triatloia lehiatu ostean jarraitu genuen bidaiarekin. Autoa hartu eta bi egun egin genituen Las Vegas hirian. Handik New Yorkera joan ginen eta astebete eman genuen hiria ezagutzen. New Yorkeko maratoi ospetsua ere ikusi ahal izan genuen.

### **Maratoia egiteko moduan zinen, triatloirako egin duzun prestatetarekin.**

Bai, beharbada bai, baina ez zen inondik inora nire asmoa, kasualitatea izan zen maratoia gu han ginela jokatu izana. Bitxikeria gisa, Mugertza krosa bi alditan irabazitakoa den Hellen Obiri kenyarrak laugarren egin zuen New Yorkeko maratoiaren eta gure paretik pasa zenean animoak eman genizkion bere izena oihukatuta. 'Aupa Elgoibar!' ere esan nion. Burua gugana giratu eta larri antzean zihoanaren keinuarekin erantzun zigun.

### **Eta orain, zer?**

Atsedean hartuko dut, eta hurrengo urteko Euskadiko eta Espainiako triatloi txapelketak ahalik eta ondoen prestatzen ahaleginduko naiz. Espainiakoa Bartzelonan izango da. Hurrengo urteko munduko txapelketa, berriz, Finlandian jokatuko dute. Hala ere, Finlandiarako sailkatzea lortuko banu ere, oraindik ez daukat erabakita hara joango naizen.



**LANA****Eskaerak**

Klase partikularrak emateko prest gaude, astelehenetik ostiralera 15:15etatik 19:15era edo 20:15etara. HH, LH, DBH eta Batxilergoko ikasleentzat.  
**688 610 755**

Umeak goizetan eskolara eramateko prest nago. Arratsaldeetan, berriz, umeak zainduko nituzke edo orduka garbiketa lanak egin. Esperientzia daukat. **615 759 069**

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Zerbitzari edo sukalde-laguntzaile lanak ere egingo nituzke.  
**643 575 039**

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Zerbitzari edo sukalde-laguntzaile lanak ere egingo nituzke.  
**643 575 070**

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Zerbitzari edo sukalde-laguntzaile lanak ere egingo nituzke.  
**622 023 451**

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan eta gauetz. Etxeko langile moduan ere bai.  
**652 020 464**

Ingelesko klase partikularrak ematen ditut.  
**600 712 679**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan.  
**631 357 711**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. Orduka zein etxeko langile moduan lan egiteko prest.  
**624 343 451**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Titulua daukat eta euskaraz dakit. Orduka.  
**626 490 986**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Bost urteko esperientzia daukat.  
**642 126 876**

Ganaduzaintzan edo baserrietan lan egiteko prest.  
**612 281 385**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.  
**612 281 385**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.  
**642 578 943**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.  
**642 577 823**

Adinekoak zein umeak zainduko nituzte eta etxeko lanak egiteko ere prest nago. Etxeko langile moduan egoteko prest.  
**641 739 472**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, goizez. Beharrezkoak diren titulua ditut.  
**631 887 341**


Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, arratsaldez edo asteburuetan. Beharrezkoak diren titulua ditut.  
**688 739 536**

**GARAJEAK**

Garaje marraduna alokatzen da Lekuedurren.  
**699 143 767**


 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkainako Administrazioaren Kontseilua</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etaldeen Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure komunitateko portalean berrikuntzak egingo dituzte, baina etxe-jabe batzuk ez gaude berrikuntza horiekin konforme. Jakin nahi nuke gastu horiek ordaintzera derrigortuta gauden.</b></p> <p>Legediak salbuespen bat dauka gai honetan, eta erantzuna portalaren berrikuntzaren arazoaren arabera izango da: Berrikuntza hori eraikitzen ez dagoen eta izaeraren kontserbazio egokiari lotuta badago, etxe-jabe guztiak ordaindu beharko dituzte gastuak, nahiz eta ados ez egon eta kontra bozkatu. Baina portaleko berrikuntza ez badago irizpide horri lotuta, komunitateko kuotaren 3 hilabeteko kopurua gaintzen ez bada soilik eskatu ahal izango zaie gastu hori ordaintzeko erabaki horrekin ados ez dauden etxe-jabeei. Muturreko egoeretan ez da horrelako arazorik gertatzen. Eraikinak su hartu badu, ez dago dudarik berritzea derrigorrezkoa dela eta denen artean ordaindu behar dela.</p> <p><b>ONDORIOA: Eraikinaren ezaugarrien arabera, irizpidea erlatibo da. Helburua eraikina hobetzea bada eraikinaren kokapenari eta etxe-jabeen erosketa mailari dagozkion mugak gaintuta, ulertu daiteke kapritxoz egiteko berrikuntza bat dela, eta ondorioz, eskatu ahal zaie erabakia hartu dutenei bakarrik ordaintzea. Erdibidean egongo litzateke zalantza egoera, eta horrek interpretazioa beharko luke. Obraren neurria eta obra hori egiteko beharra aztertu beharko lirateke, eta horrek iritzi desberdinak sortuko litzuke.</b></p> <p><b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
---	---



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Unax!** Asteartean 10 urte beteko dituzu! Primeran zure egunean.



Zorionak, **Danel,** etxeko guztion izenean, azaroaren 21ean 12 urte beteko dituzulako. Asko maite zaitugu!

Jon Aranao  
Guillermo Torres



Elgoibar  
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astleheneak ostiratarik: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Leopoldo zerbizua daukagu.  
Datu ardua hartzeko.

## EXPRESS ESKAINTZAK!

### HISENSE 55A7100F TELEBISTA



**369 €**



● 4K UHD ● Smart TV ● HDR 10+

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



## KONTSULTATEGIA

### Dentistari beldurra

**D**entistarengana joan beharra beldurgarria da pertsona askorentzat. Beldur horrek odontofobia eragin dezake pertsona askorengan, eta, horren ondorioz, hertz-klinikara joateri utzi dezakete.

Hau gerta ez dadin, zenbait aholku ematea gustatuko litzaiguke, izua duen pazienteari dentistari beldur hori galtzen laguntzeko:

1. Lehen kontsulta egin aurretik, hertz klinika bisitatu eta zure arazoa zein den esan behar duzu, beldurrik gabe.
2. Saia zaitez zure lehen hitzordua erraz has dadin, tratamendu konplikaturik gabe, aho garbiketa batekin adibidez, beldurra galtzen hasteko.
3. Konfiantza izan profesionalarengan, konta iezaozu inolako eragozpenik gabe zer sentitzen duzun, modu horretan odontologoak behar duzun guztian lagun diezazun.
4. Guzti hau jarraitu ondoren oraindik beldurrez bazaude, beti daude sedazio kontzientea bezalako aukerak, non pazientea kontzientzia kontrolatura bultzatzen den, bere beldurra, antsietatea edo min posibleak murriztuz.

Aldazen ere baditugu osasun mentaleko profesionalak, hasiera-hasieratik zurekin egongo direnak. Elena Vadillo gerenteak, Psikologian lizentziadunak, behin baino gehiagotan lan egin du egoera horretan dauden pazienteekin, eta, azkenean, beldur hori galtzen lagundu izan die.

### ALDAZ HORTZ KLINIKA

San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar  
[iyd@dentalaldaz.com](mailto:iyd@dentalaldaz.com)

**943 366 377**

## 18 BARIKUA

**16:30** Odol ateratzeak, Mendaron. Ikastolan. Txanda hartu behar da: 747 440 060

**16:30** Odol ateratzeak, Elgoibarren, Jubilatuen Biltokian. Txanda hartu behar da: 623 328 408.

**17:00-19:00** Euskaraldiko txapak banatuko dituzte Mendaron, jubilatuen ondoko lokalean.

**18:30** Hitzaldia: 'Zer eragin du alkoholaren kontsumoak familietan?'. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**23:00** Kontzertua: Sijjin. Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

## 19 ZAPATUA

**10:30** Karakateko Igoera. Kalegoan plazan hasita.

**13:30** 'Esazu hitz bat' herri dantza!. Euskaraldiari hasiera emateko ekitaldia, Kalegoen plazan.

## 20 DOMEKA

**9:20** Kalbariora mendi irteera. Morkaikok antolatuta, Ikastola eta Herri Eskolarekin. Trenez joango dira Debara.

**11:00** Kalejira: Mendaroko Ameikutz musika eskolako txistulariekin.

**15:30** Autokontsumo instalakuntzak ezagutzeko bisitak baserrietara. Karakate Bizirik plataformak antolatuta. IMHko aparkalekutik.

## 21 ASTELEHENA

**9:00** Erakusketa: 'Ez normalak, ez otzanak'. Lumagorri elkarteak antolatuta. Aita Agirre kultur kafean.

**18:00** Kalejira: Mendaroko Ameikutz musika eskolako trikitilariekin.

**19:30** Talde instrumentalen kontzertua. Musika Eskolako auditoriumean.

## 22 MARTITZENA

**10:00** Santa Zezilia Eguneko ekitaldia. Ikastolako ikasleen saioa. Maalako parkean.

**19:00** Hitzaldia: 'Eta, orain zer? Bestelako basogintza eredu baterantz'. Baso Biiak taldeak antolatuta, Errez kooperatibako kideek emango dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**19:30** Urazandi auzoko obrei buruzko bilera. Urazandi Auzo Elkarteak deituta, Haur Eskolako eraikinean.

## 23 EGUAZTENA

**16:30** Hitzaldia: 'Gizonezkoak eta berdintasunaren erronka XXI. mendean'. Gizonduz elkarteke Josetxu Rivierek emango du, Jubilatuen Biltokian.

**18:00** Hitzaldia: 'Eta, mutilekin zer?'. Hiruki larrosa elkarteke Ibai Fresnedok emango du. Arno Guraso Elkarteak eta Udalak antolatuta, Mendaroko udaletxeko pleno aretoan.

**19:30** Talde instrumentalen kontzertua. Musika Eskolako auditoriumean.

**Ondoren**, diploma banaketa. Musika Eskolako auditoriumean.

## 24 EGUENA

**18:00** Hitzaldia: Buruko gaixotasuna duten senideen bizi kalitatea nola hobetu. Agifese (Gipuzkoako gaixo psikikoen senideen elkartea) antolatuta. Kultur Etxean.

**19:00** Betisua txaranga eta musika eskolako trikitilarien kalejira. Kalegoen plazatik Maalara.

## 25 BARIKUA

**18:00** Elkarretaratzea: Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna. Kalegoen plazan.

**19:00** Kontzertua: El Drogas. Herriko Antzokian.

**19:30** Indarkeria matxistaren biktima izan direnak gogoratzeko ekintza, Mendaroko Herriko Enparantzan, Tratu Onen Aldeko Taldeak deituta. Ekintzarako, zapatak biltzen ari dira Morroskillon eta Leire jantzi dendan

## BAGAOZI! GAZTEEN EGUNA

### 19 zapatua

**10:30** Karakateko Igoera. Kalegoan plazan hasita.

**12:30** Errifen sari banaketa.

**13:00** Txupinazoa, Maalan.

**13:30** Euskaraldia: 'Esazu hitz bat herri dantza'.

Kalegoen plazan.

**15:00** Gazte bazkaria. Sigmako aparkalekuan.

**Ostean**, sorpresa.

**19:00** Mauxitxa txaranga.

**22:00** Erromeria, Fan&Go taldearekin.



## Zinea



### 'Modelo 77'

18 vienes: 19:00  
 19 zapatua: 19:00/22:15  
 20 domeka: 19:00  
 21 astelehena: 21:00

### 'Operación bebé oso'

20 domeka: 16:30

### 'El perdón' (Ongarri)

23 eguaztena: 21:00

**Botika ordutegiak:** 09:00-13:00 7 16:00-20:00

**GUARDIAK:** Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

### IRAILA

18 BARIKUA  
 19 ZAPATUA  
 20 DOMEKA  
 21 ASTELEHENA  
 22 MARTITZENA  
 23 EGUAZTENA  
 24 EGUENA  
 25 BARIKUA

### Egunez

■ Oruesagasti  
 Barrenetxea  
 Barrenetxea  
 Barrenetxea  
 ■ Ibañez  
 Garitaonandia  
 Arriola  
 ■ Fernandez  
 Yudego

### Iluntzean

Garitaonandia  
 Barrenetxea  
 Barrenetxea  
 Barrenetxea  
 Garitaonandia  
 Garitaonandia  
 Arriola  
 Garitaonandia  
 Yudego

■ Fernandez:  
 Herriko Enparantza,4  
 Garagartza (Mendaro)  
 943 756 142

■ Ibañez:  
 Rekalde, 1 (Soraluze)  
 943 751 638

■ Oruesagasti:  
 Kalebarren, 9 (Soraluze)  
 943 751 384

Urte guztian, gauez: 22:00-09:00

Esther Mendinueta Berastegui - Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106

## JUBILATUEN ASTEA

### 21 astelehena

*Kulturaren Eguna*

**17:00** Zine foruma. Jubilatuen biltokian.

### 22 martitza

*Lagunarteko Eguna*

**18:00** Txokolate jana. Jubilatuen biltokian.

**Segidan,** Gabonetako otarren zozketa.

Jubilatuen biltokian.

### 23 eguaztena

**16:30** Hitzaldia: *Gizonezkoak eta berdintasunaren erroka XXI. mendean.*

### 24 eguena

**17:00** Kafe tertulia: Elgoibarko iragana eta oraina ezagutu, argazkien bidez. Jubilatuen biltokian, Pello Arrieta eta Javier Elortzarekin.

### 25 barikua

**11:00** Mufomi fosilen museora eta haitzuloaren erreplikara bisita. Javier Vargasek gidatuta. Artetxeko musean.

### 26 zapatua

**16:30** Kina berezia. Jubilatuen biltokian.

### 27 domeka

**11:00** Meza, hildako jubilatuen omenez. San Bartolome parrokian.



Ikusi gure katalogoa!

- ❖ Neurria egindako oheburuak!
- ❖ Oihal mota eta sky aukera zabala!
- ❖ Neurri guztiak! Kolore guztiak!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



Iñigo Lamelas



Irati Agirreazaldegi

**E**makumeen erasoek ilundu ohi dute argazkiko loreen morea; azaroaren 25a emakumeen tratu txarren aurkako aldarrikapen eguna da, ordea, eta ilundu ordez argitu egin daiteke loreen eta emakumeen kolorea, egun batez bada ere, indartu egin nahi baita tratu txarren aurrean erakutsi beharreko adorea.

Moretik berdera, inguruko zein urrutiko emakumeen tratu txarretatik ingurumenaren tratu okerrera. Berdea landare moreen oinarrian dago, baina berde deitzen dieten haize-errotak erraldoiak daude lore horietatik harago. Harago edo honantzago, Elgoibarren horrelako tramankuluak ipintzeko egitasmoa abian baitago.

Bi haize errota, Akelar eta Pagomunetan ate joka, eta mendiko lur guztiak mugitzerako, inguru horietan mugitzen diren zein herritik ikusten duten elgoibartarrak lur jota.

Munetatik Hirukurutzetara, Karakate. Zeinek ez ditu pasa gain horietan mendiko hainbat ate. Dolmenen ibilbidean barrena pausoak eman nahi genituzke aurrerantzean ere aske, baina trabak jartzeko asmoa daukate. Trabak guri eta animaliei, haize errota handi horien burrunbada izango baita haien kate, eta landareek ere galduko dute orain arteko beraien hainbat tarte.



Nora eramango du haizeak paisaia txikituta sortuko den dirua? Guztion baliabide naturalak xurgatuz energia sortzea bada helburua, honen jabetzak publikoa eta jomugak komunitarioa behar dute izan, baina errota erraldoiek energia sortzeko dantzan jarri nahi duten haizeak dirua eta energia baino gehiago ez al du eragingo herritarrengan apurua?

Orain dela hogeitun urte horrelako egitasmo batek larritu gintuen, baina berriz asmo berdinekin etorriko zirenik nork sinetsi. Alde batean, Elgoibar eta bestean, Plaentxi, eta herritarrok eraikuntza hauen aurkako pausoak ematen hasi garenez, ez dugu behar etsi. Indar egin behar dugu gaur, bihar eta etzi, haizeak eraman dezan oraingoz paperean dagoen egitasmo hau ere ihesi.

***"Dolmenen ibilbidean barrena pausoak eman nahi genituzke aurrerantzean ere aske, baina trabak jartzeko asmoa daukate"***

*Betaurrekoak maite ditugu*

**BLACK  
FRIDAY**

**2x1**  
betaurreko  
graduatueta

(\*galdetu baldintzak)

**AZAROAREN  
21 ETIK 30 ERA.**



BUELTAN DA ELGOIBARKO IZARRAREN

**TONBOLA!**

**1.000 erregalu baino gehiago...**

Aurten bai! Aurreko urteetan  
**TONBOLAK** izan duen estimazioak  
bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik  
aurrera**, Elgoibarko Izarraren tonbola  
jarriko dugu **Kalegoen plazan**.  
Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



Motxilak



"Emazte"  
musika cd-a



Errigora  
otarrak



"Udarregi bertsolaria"  
liburuak



Produktuez  
osastutako poltsak



Kuadernoak



Ardo botilak



Edalontziak



Margo lanak



Ilerako  
produktuak



# NEGUKO OPORRALDIA



## HH2-HH3 / HH4-HH5

**TXOKOAK 9:00-13:00**

1. txanda (abenduak 26-30)
  2. txanda (urtarrilak 2-5)
- Bi txandak

Ohikoa / Bazkideak  
60€ / 54€  
48€ / 43€  
97€ / 87€



## LH1-3

**TXOKOAK 9:00-13:00**

1. txanda: (abenduak 26-30) **Arrikruz barne**
  2. txanda: (urtarrilak 2-5) **Debara irteera+ Grand Prix barne**
- Bi txandak

Ohikoa / Bazkideak  
72€ / 65€  
50€ / 45€  
117€ / 105€

\*Txokoaren izen ematen dutenek abenduaren 28ko eta urtarrilaren 2ko eta 3ko ekintzak barne izango dituzte.

## EKINTZAK

### ARRIKRUTZ-ERA IRTEERA "ESPELEO TXIKI"

Abenduak 28  
10:00 - 18:00  
24 € (bazkideek, 22 €)



### FESTA PRESTAKETA ETA URTE AMAIERAKO FESTA

Abenduak 29, 16:00-19:00  
Abenduak 30, 17:00-20:00  
12 € (bazkideek, 11 €)

### DEBARA IRTEERA: GAZTELU LEHIAKETA

Urtarrilak 2  
09:00 - 13:00  
12 € (bazkideek, 11 €)



### "GRAND PRIX" DISTA-JOKOA

Urtarrilak 3  
09:00 - 13:00  
12 € (bazkideek, 11 €)

## LH4-6

### CITY JUMP GASTEIZ-ERA IRTEERA

Abenduak 26  
10:00 - 18:00  
24 € (bazkideek, 22 €)



### FESTA PRESTAKETA ETA URTE AMAIERAKO FESTA

Abenduak 29-30  
16:00 - 19:00/17:00 - 21:00  
15 € (bazkideek, 14 €)

### EGONALDIA ELGOIBARREN (KLUEDO, GOT TALENT, AFARI BEREZIA...)

Irteera: urtarrilak 2, 10:00  
Itzulera: urtarrilak 3, 17:00  
42 € (bazkideek, 40€)



## UDALAREN DIRULAGUNTZAK

EPEA: ABENDUAREN Setik 20ra  
Informazioa Udalean / Información en el Ayuntamiento  
943741050 (gasteria)  
gasteria@elgoibar.eus

## INFORMAZIO GEHIAGO + información

Elgoibarko Izarra  
Aito Agirre Kulturgunea 3, 3. ezk  
943 74 17 46  
www.elgoibarkoizarra.eus  
atxutxiamaia@elgoibarkoizarra.eus

Udal L. udoteka  
Gabriel Kurutzelargi, 6  
943 74 88 83 /  
656740793  
ludoteka@elgoibar@gmail.com

## IZEN EMATEA

Azaroaren 21etik abenduaren 2ra

- www.elgoibarkoizarra.eus
- Elgoibarko Izarraren bulegoan
- Udal Ludotekan

Plaza mugatuak / plazas limitadas



## IRUDI-KONTAKIZUN LEHIAKETA GAIA: NI

DBH ETA BATXILERGOKO IKASLEENTZAT

SARIA: ELGOIBARKO DENDETAN GASTATZEKO 100€KO BONOIA

Lanak atxutxiamaia@elgoibarkoizarra.eus helbidera bidali edo Elgoibarko Izarrako bulegoan ekarri behar duzue behar duzue abenduaren 21 baino lehen

